

Kontzeju

www.oiñati.eus



Berbia Oñati



@BerbiaOñati



koletina



Oñati Irratib

Oñatiko Udal aldizkaria | 2018ko ekaina | 284. zenbakia



DELIK



Oñatiko
Eskola Kirola

ESKOLA KIROLAK

eredu berria jarriko du abian irailetik aurrera

ELKARRIZKETA

JERARDO ELDRTZAREN OMENEZKO KULTURA ASTEA / ekainak 1-9
Euskaltzalearen ibilbide eta lan mardulari errepassoa (1-4 orriak)





| JERARDO ELORTZAREN OMENEZKO KULTURA ASTEA |

MEREZITAKO OMENALDIA

Herriaren esker ona jasoko du Jerardo Elortzak

Hizkuntzalari, historialari, euskaltzale... zaila da Jerardo Elortza hitz bakar batekin definitzea. Baina garbi dagoena da, ekarpen handia egin diola euskal kulturari, oro har, eta bereziki Oñatikoari. Ezin konta ahala liburu, artikulu, hitzaldi plazaratu ditu gure historia, ondarea, etnografia edota herriko euskararen inguruan. Langile nekazina da, eta eskuzabala. Horregatik, herritar talde zabal batek omenaldia egin nahi dio, udalarekin batera, herriaren alde egin duen lan oparoa aitortu, eskertu eta ezagutzera emateko. Bide batez, 60. eta 70. hamarkadetan euskara eta euskal kultura berpizten ahalegindu ziren herritarren lana ere aitortu nahi da.



‘Erein Aroa’ deitu izan diot euskal kulturak 60-70. hamarraldietan bizi izan zuen berpizkundeari. Orduan ereindako haziari esker jaso ditugu gerora hainbat emaitza

Euskarari ondoen eutsi dion herrietako bat da Oñati. Helburua izan beharko litzateke erabilera mailari eustea eta, aldi berean, gure hizkera aberastea

Hizkuntzalaria, historialaria, euskaltzalea... Jerardo Elortzak ekarpen handia egin dio euskal kulturari.

Aste osoko ekitaldiak borobilduz, hainbat herritarren eta udalaren omenaldia jasoko duzu ekainaren 9an. Badakit ez duzula gustuko hala nabarmentzea, baina polita izango da herritarren esker ona eta maitasuna sentitzea, ezta?

Apur bat ikaratuta nagoela aitortu behar dut, eta aste osoko egitaraua lartxo ere badela uste dut, baina 1960 eta 1970eko belaunaldiak egindako lana gogoratu eta gaurko gazteei azaltzeko balioko du, eta zerbait positiboa atera daitekeela iruditzen zait.

Zure lana ez ezik, 60 eta 70. hamarkadetan euskara eta euskal kultura berpizten ahalegindu ziren herritarren lana ere aitortu nahi da jardunaldi hauen bidez. Zein izan zen belaunaldi haren ekarpen nagusia?

Euskal Herrian 60. hamarraldian kultura mailan eman ziren aurrera pausuei buruzko artikulua bat idatzi nuen bere egunean: ikastolen mugimendua, *Zeruko Argia* astekari bihurtzea, *Ez Dok Amairu*, Euskalduntze-Alfabetatze mugimendua, liburugintza berria... ‘Erein Aroa’ izenburua jarri nion; hau da, beharbada ez zen gauza askorik eskuratu garai hartan, baina hazia erein zen

gerora etorri diren hainbat emaitza lortzeko.

Oñatin, ikastola sortu zen, Oñatz elkarte ere bai (ekitaldi gehienak gazteleraz egiten baziren ere, euskarazko antzerki talde bat eratu genuen), eta 70. hamarkadan udal liburutegiaren inguruan osatu zen lantaldea azpimarratuko nuke: gure herriari buruzko hainbat azterlan argitaratu zituen aldizkari batean, azkenik *Oñatiko Arte eta Historia Bilduma* lanarekin borobiltzeko. Eskola inportantea izan zen guretzat Oñatiko herria hobeto ezagutzeko.

Zuk zeuk gazteleraz egin zenituen ikasketa guztiak (beste aukerarik ez zegoelako, jakina). Nondik dator kizua euskara eta euskal kulturarekiko zaletasuna?

Pittin bat etxetik. Aita bertsozalea zen, eta euskarazko liburu batzuk ere bazeuden etxean *Basarriren* bertsoak, adibidez. Gainerakoan, hemen, Maristen ikastetxea, gaztelania zen nagusi, nahiz eta gure artean euskaraz hitz egin.

Gero zortzi urte eman nituen Sasturraran eta Donostiako seminarioen artean, eta ez dut esango giroa euskaltzalea zenik, ezta gutxiago ere, baina irakasle pare baten bitartez (Juan Mari Lekuona eta, bereziki, Anton Garro) euskararen mundura hurbiltzeko aukera izan genuen. Matematikako maisua zen Garro, baina euskal liburutegi partikular bikaina zeukan, eta haren bidez izan nuen Domingo Agirre, Orixe, Lauaxeta eta Lizardi eta abarren lanak ezagutzeko eta irakurtzeko aukera, besteak beste. *Euzko-Gogoa* aldizkari klandestinoaren berri ere eman zigun, eta Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* (1961) liburuaren bidez konturatu nintzen euskaraz ere bazela zerbait, eta orduan zaletu edo amentzerau nintzen euskal literatura eta kulturarekin.


Donostian nengoela, euskal liburuetan erreferentia zen *Manterola* liburu-dendara sarri joaten nintzen, seminarioko ikasleen artean *Hezibide* izeneko euskarazko aldizkari bat ateratzen hasi ginen, eta gero, seminarioa utzi ondoren, euskarazko eskolak ematen hasi nintzen, Donostian lehenengo eta Deustun gero, Filosofia eta Letrak ikasketak egiten nituen bitartean.

Lan handia egin duzu, besteak beste, Oñatiko euskara prestigiatzen. Hor daude, adibidez, aldizkari honetan bertan Oñatiko euskara jator eta dotorean idatzitako ehunka artikulua. Nola ikusten duzu gaur egun Oñatiko euskararen egoera?

Kale giroan euskara bizi dagoela uste dut. Azkoitia eta Azpeitiarekin batera, Oñati izango da herri hazitxoaren artean euskarari ondoen eutsi diona. Pozgarria da kalean gazteak euskaraz entzutea, eta azpimarratuko nuke, gainera, neskek ere mutilek adina egiten dutela, gure garaian emakumezkoek gazteleraz hitz egiteko ohitura baitzuten.

Egia da, bestalde, orduko euskaratik gaur egungora alde handia dagoela. Pobretu egin dela iruditzen zait. Lehen arropak *jantzi/erantzi* esaten genuen, eta orain *ipini/kendu*, lehen argia *ixutu/itxungi* eta orain *ipini/kendu*. Eta oinarri-oinarrizko hitzak dira. Zer esanik ez, terminologia espezifikoa erreparatzen badiogu. Sasoi bateko berba eta esamolde asko galduz doaz. Beraz, helburua izan beharko litzateke euskararen erabilera mailari eustea, eta, aldi berean, gure hizkera aberastea lehendik datorren tradizioarekin. Zubigintza horretan pausuak eman behar ditugu.

Txokokeriarako (herriko hizkerak) joera gehiegi zabaltzen ari



KEPA ELORTZA

«Herrixaren eta gure hizkuntzaren alde egin dauen lana azpimarratuko neke. Jerardo hori egon ez bazan, eztakit nun egongo zan Oñatiko euskeria bera. Horregatik eta beste arrazoi askorengatik ondo merezittako omenaldixa dala uste dot.»

dela kritikatu dute hainbat hizkuntzalarik. Euskara Batua prestigiatu behar dugula esan dute. Zer iruditzen zaizu?

Zeharo konforme nago horrekin. Baina, aldi berean, esango dut ez nagoela konforme gaur egun nagusitzen ari den Euskara Batu 'giputz' arekin. Euskal irrati-telebistako esatari-kazetari gehienak giputzak dira, eta beraien hizketa moldea ari da nagusitzen. Adibidez, *gertu/gerturatu* hitza Gipuzkoako eskualde batzuetan bakarrik erabiltzen zen; Bizkaia osoan eta Gipuzkoako leku askotan *hurreratu* zen nagusi, eta forma klasikoa *hurbildu*, baina, gaur egun, 10etik 8tan *gertu/gerturatu* erabiltzen da. Eta hala beste hitz askorekin. Euskal literaturan tradizioa duten berba asko zokoratuz doaz, eta hori pobretasunaren seinale da. Beste euskalki batzuetako hitzak sartu dira, baina nire ustez gutxitxo.

Bestalde, ikusten dut komunikabideetan ia egunero edo astero azaltzen diren politikari, kirolari eta beste jende askok ez duela batere zaintzen hizkuntza, ez duela batere lantzen, eta pobrezia handia dago, baita batuan ere.

Nik uste dut denok izan beharko genukeela gai bietan (Oñatiko euskaraz eta batuaz) hitz egiteko eta idazteko. Oñatiarrok ere bai. Horregatik, gu beti saiatu izan gara oñatiera eta batuaren arteko zubigintza egiten, oñatieraz idazten dugunean laburdura asko egin gabe, herriko euskararen eta estandarren artean eten handirik egon ez dadin.

«Denok izan beharko genuke gai bietan (Oñatiko euskaraz eta batuaz) idazteko eta irakurtzeko. Oñatiarrok ere bai»

Liburu, dokumentu eta argazki zahar artean irudikatzen zaitugu askok, baina zure biografia erreparatuz, arreta eman dit arte eszenikoetarako eta, bereziki, antzerkirako izan duzun zaletasunak.

Beharrak eraginda edo militantziagatik, beharbada, gauza larregitan sartzea egokitu zaigu, behar beste sakontzeko aukera barik, kasu askotan.

1960ko hamarkadan antzerki talde asko sortu ziren, gehienak amateurak, eta Oñatin bertan ere bi talde izan genituen Oñatz elkartearen baitan, bata gaztelerazkoa eta bestea euskarazkoa, eta hiru antzezlan taularatu genituen (1966-71 artean), bai Oñatin eta baita inguruko herrietan ere. Aldi berean, Bilbon nengoela, *Kriselu* antzerki taldean ere ibili nintzen, Gabriel Aresti, Xabier Elorriaga eta beste batzuekin batera, besteak beste. Artean ez zen ia euskal zinerik egiten, eta euskara zabaltzeko bitarteko bat zen teatroa.

Gerora, Makalena elkartekoak hasi zirenean Herri Egunaren bueltan antzerkia egiten, hiru bat obratan parte hartu nuen, aktore baino gehiago testuekin eta zuzendaritza-lanetan laguntzen Iñazio Irizarri. Ikasketa amaierako tesina ere Alemaniako antzerkigintzari buruz idatzi nuen.

Eta zineari dagokionez, dokumental txiki batzuetan — *Liñugintza* (1974), *Aita Lasa, artzainen artzain* (1981), *Lope Agirre* (1983) eta *Gabon dut Anuntzio* (1999)— parte hartu nuen, Agustín Goenagaren adiskidearen bidez.

Oñatiko Arte eta Historia Bilduma lan bikaina argitaratu zuen taldeko kide izan zinen, eta orduz geroztik ardura berezia izan

Jerardo Elortza Egaña
1944-06-5

Filosofia eta Letrak (Alemaniar Filologia) ikasi zuen Deustu eta Münster-eko unibertsitateetan.

Bergarako Aranzadi ikastolan irakasle jardun zuen 3 urtez, eta beste 19 urtez UNEDeko Euskal Kultura departamentuan.

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailean urtebeten lan egin ostean, Mondragon Unibertsitatean (Oñatiko fakultatean) jardun zuen irakasle, erretiroa hartu arte.

Bidegileak liburu bilduma zuzendu zuen 2009-2016 artean.

KULTURA ASTEA EGITARAUA

Ekainak 1-9: Jerardo Elortzari buruzko **erakusketa** kultur etxean (18:00-20:00).

Ekainak 4: Hitzaldia: 'Jerardo Elortza egile'. Hizlaria: Juan Martín Elexpuru. Aurretik, Idoia Etxeberriak prestatutako bideo-biografia emango da, eta Paulo Anduaga agustindarrak ere hitz egingo du. Santa Ana antzokian, 19:00.

Ekainak 6: Mahai-ingurua. '1965-1980 urte inguruko Oñatiko kultur bizitzaren berpizkundea, garaiko lekukoaren eskutik (Euxebi Osa, Carmenchu Balzategi eta Jantxo Madariaga)'. Kultur etxean, 19:00.

Ekainak 7: Filmen emanaldia. Jerardo Elortzak parte hartutako filmak ('Gabon dut Anuntzio', 'Liñugintza', Aita Lasa, artzainen artzain' eta 'Lope de Agirre') ikusgai, Agustín Goenagak eta Kepa Elortzak aurkeztuta. Kultur etxean, 19:00

Ekainak 9: Omenaldi ekitaldia. Santa Ana antzokian, 12:00. Ostean bazkaria Etxe Aundin.

Ekainak 17: Ibilaldixa Araotz-Urrusula artean (Sandaili, makinexea...) Jerardo Elortza eta Imanol Biain gidari direla. Araozgo saloian, 08:30.



TXARO BARTUREN

«Azpimarratuko nuke Euskal Herriaz, oro har, eta, batez ere, Oñatiri buruz Jerardok beti izan duen jakinmina arlo ezberdinetan: hizkuntza, kultura, historia, etnografia... Gure herriarekin lotura duen guztia interesatu izan zaio eta gero transmititzen saiatu da»



Bere bizitzaz eta lanaz hitz egin digu Elortzak.



www.jerardoelortza.eus

Hogei bat liburu (horietako batzuk taldean) eta ehunka artikulua argitaratu ditu Jerardo Elortzak han-hemenka. Horietako asko *Kontzejupetik* aldizkari honetan bertan. Bada, horien guztien erreferentzia zehatza aurkituko duzue www.jerardoelortza.eus webgunean.

AHOTSAK.EUS

Idatzizko lanez gain, Jarado Elortzari egindako hainbat elkarrizketa entzungai daude www.ahotsak.eus/onati/hizlariak/jerardo-elortza atarian. Oñati Irratian eta *Ahotsak* proiekturako egindako elkarrizketak dira.



«Nire desioa da, ondare eta hizkuntza mailan herrian egon den militantzia hori belaunaldi berriek bere gain hartzea»

duzu herriko ondarea (historia, arkitektura, artea, etnografia...) transmititzen, balioan jartzen eta horren inguruko kontzientziarioa sortzen.

Lehen esan dudan moduan, aipatutako lan horri esker asko ikasi genuen Oñatiri buruz, eta uste dut bidezkoa dela Felix Ugarte zenaren izena aipatzea, bera izan zelako benetako motorra, gainerako taldekideak ahaztu barik, jakina.

Nire iritziz lan interesgarria izan zen, eraikin klasikoetara bakarrik (unibertsitatea, parrokia...) mugatu barik, herriaren egitura (kaleak, etxeak, errabalak...) eta baserri giroko beste hainbat elementu (karobiak, posakerak, errotak...) ere jaso zirelako. Eskola moduko bat izan zen guretzat. Zoritzarrez, inbentario hartan jasotako elementu asko galdu, hondatu edo eraitsi egin dira, baina balio izan zuen jendea ikusarazteko ondarea ez direla bakarrik eraikin monumentalak.

Ildo horretan, ondarea babesteko *Kapirixo* taldea sortu genuen eskualde mailan, eta ibilaldi asko egin genituen (Kapirixok eta Laixanek antolatuta) herrian eta auzoetan zehar, leku bakoitzeko arkitektura, etnografia, ohiturak, kanta zaharrak... jaso eta ezagutzera emateko.

Natur Eskola ere lan handia egiten ari delakoan nago, baita Artixa taldea ere, eta denon artean piztu dugu apur bat ondarearekiko sentsibilizazioa.


Oñatiko historiaz, euskaraz, euskal kulturaz... hainbat eta hainbat lan argitaratu duzu han-hemenka. Zer falta zaizu egiteko? Zer ikusten duzu egin beharreko?

Askio dago egiteko, baina jada ez gara mutikoak. Aurretik moldatutako lantxo batzuk hobeto ez egin izanaren pena ere badut. Gauza larregitan sartzen gara, eta ezin denak behar den moduan burutu. Adibidez, oñatiarrez idatzitako eskuizkribu zaharrenen (Manuel Umerez, 1805) argitalpena egokiago egin zitekeela uste dut.

Ahal dudan artean, lan ezberdinak egiten jarraituko dut. Nire desioa da, bai ondare mailan eta baita hizkuntza aldetik ere, herrian orain arte egon den militantzia moduko hori ea belaunaldi berriek bere gain hartzea.


Amaitzeko?

Ez dakit zenbateraino merezi dudan hau, baina horretan saiatu direnei, eskerrak bihotzez. Bestalde, askotan parte hartu izan dut talde-lanetan, eta eskerrak eman beharrean nago Oñatzekoei, udal liburutegiko lantaldeari, Berba taldeko adiskideei, *Gerrako garrak* liburuaren aritu zirenei (orduak garai zailak izan ziren niretako: gaia delikatua zen batetik, eta bestetik Tere emaztea orduantxe hil zen), memoria historikoan jardundakoei, udal euskaltegiko kideei, Laixan, Kapirixo nahiz Artixakoei, Oñatiko udalari, ikastetxei, artxibozainei, beste hainbat erakunderi eta herritar askori. Etxekoen eta senideen aldetik ere beti izan dut erabateko babesa, eta azken urteotan Euxebik ere asko lagundu dit. Eskerrak denoi behin eta berriz. Barkatuko ahal didate nahi gabe aipatzeke utzi ditudanak!



IDOIA ETXEBERRIA

«Pertsona oso jantzia da Jerardo; bi hankadun entziklopedia. Gaiñera oso umilla da, beti lagunketako prest eta saltsa danetan parte hartzeko gertu egoten da. Halaxe juntau giñan *Gerrako Garrak* liburua idazten, beste batzuekin batera. Oso aberasgarria izan zan»



JUAN MARTIN ELEXPURU

«Ondo mereztako omenaldia jasoko dau. Oñatiarrok badakizue zenbat lan egin daben Oñatiko historia aztertzen eta kontatzen eta ondaria zaintzen. Konta ezin ahala die Oñatitik kanpora egindakua be, bergararrok ezin ahaztu UNEDeko Euskera Departamenduaren sortzaila eta zuzendaria izan zala»

Eusko Ikaskuntzaren Ohorezko Bazkide izendatuko dute Oñatiko udala

Ekainaren 2an jasoko du titulua, Santa Ana antzokian



Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzen I. Kongresua 1918ko irailean (Kutxateka)

Larunbatean (ekainak 2) Eusko Ikaskuntzak *Ohorezko Bazkide* titulua emango dio Oñatiko udalari, ehun urteko ibilbidean zehar eskaini dion babes eta harrera eskertzeko. *Ohorezko Bazkide* izendapena 1995ean sortu zuen Eusko Ikaskuntzak, erakundeari egindako ekarpenagatik nabarmendu diren pertsona, elkarte eta instituzioei esker ona adierazteko. Eta oñatiar bat izan zen, hain zuzen, Eli Galdos diputatu nagusi eta Oñatiko alkate ohia, errekonozimendu hau jasotzen lehena.

Gerora, beste bederatzita pertsonak jaso dute *Ohorezko Bazkide* titulua bera baina erakunde bezala, Oñatiko udala izango da berau jasotzen lehena.

EKITALDI OFIZIALA, SANTA ANA ANTZOKIAN

Larunbat goizean Eusko Ikaskuntzak Santa Ana antzokian egingo duen batzarrean jasoko du udalak *Ohorezko Bazkide* titulua. Goizeko 11etan hasiko da ekitaldia, baina, aurretik, 10:30etan, Oñatz Dantza Taldeak ongiatorria egingo die Eusko Ikaskuntzako bazkideei Foruen Plazan.

Gero, dantzariak lagunduta, Santa Ana antzokira joango dira eta, bertan burutuko da ekitaldi nagusia. Eusko Ikaskuntzako lehendakari Iñaki Dorronsorok eta mendeurreneko ekitaldien komite antolatzaileko lehendakari Xabier Alkortak hitz batzuk egin ondoren, Ohorezko Bazkide titulua jasoko du Mikel Biain alkateak, herri osoaren ordezkari gisa.

Jarraian, Eusko Ikaskuntzako kide beteranoak ere omenduko dituzte. 1978an, lau hamarkadaz debekatuta egon ondoren, Eusko Ikaskuntza berrantolatzeke lanean aritu zirenei esker emateko omenaldi xume eta kuttuna egingo da, eta etapa ezberdinetan instituzioa zuzentzeko ardura eskuzabaltasunez eta ilusioz hartu zuten pertsonen egingo zaie aitortza.

» Oñatz Dantza Taldeak ongiatorria egingo die Eusko Ikaskuntzako bazkideei Foruen Plazan (10:30) eta gero Santa Anan egingo da ekitaldi ofiziala

» Oñati izango da Eusko Ikaskuntzaren Ohorezko Bazkide titulua jasoko duen lehen erakundea

Eusko Ikaskuntza eta Oñati, historian zehar

Eusko Ikaskuntzak lotura estua izan du Oñatirekin bere ehun urteko ibilbidean. Hauek dira mugarri nagusiak.

1918. Eusko Ikaskuntzen lehen kongresua ospatu zen Oñatin irailaren 1etik 8ra.

1978. Distakdura osteko lehen ekitaldia egin zuen Eusko Ikaskuntzak Oñatin. Ia lau hamarkadaz penintsulan debekatuta egon ondoren, erakundearen jarduna berriz ere martxan jartzeko batzarra egin zen Sancti Spiritus unibertsitatean, irailaren 17an.

1979. Ekitaldi berezia egin zuen Oñatin, azaroaren 4an, Jose Migel Barandiaran erakunde presidentea eta euskal kulturaren ikurra omentzeko.

1992. Barandiaran zendu ostean, ordezkoa aukeratzeko batzar berezia egin zen Oñatin. Gregorio Monreal hautatu zuten erakundearen historiako 3. lehendakari.

1993. Eusko Ikaskuntzaren I. kongresuaren 75. urteurrena ospatzeko batzar berezia egin zen Sancti Spiritus unibertsitatean, irailaren 17an.

2018. Eusko Ikaskuntzaren mendeurrena borobiltzeko, XVIII. kongresuaren amaiera ekitaldia egingo da Oñatin azaroaren 23 eta 24an, 'Geroa Elkar-Ekin' lelopean.



Txantxiku Ikastola

HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA



Guraso eta tutoreen arteko bilerak

2018/2019 ikasturtea



**Ekainaren 19an, martitzena
HH 0-1 urte**

**Ekainaren 20an, eguaztena
2 urte**

Bilerak 18:00etan

**Matrikula epea
urte osoan zabalik**

**Elkarrizketa eta
bisita pertsonalizatuak
943 78 12 04**



Ikastolen elkartea

ERKIDE



Konfiantzaren
Pedagogia

**ELKARREKIN
IKASTEN**



ESKOLA KIROLAK

eredu berria jarriko du abian irailetik aurrera

Eskola adinean dauden ikasleen heziketa integrala lortzea da helburua

2018/2019 ikasturtearekin batera, Eskola Kiroleko **eredu berria** jarriko da abian. Herriko hiru ikastetxeek (Txantxiku Ikastola, Elkar Hezi eta Urgain) **Eskola Kirolaren Plana** idatzi dute, eta **elkarte bat** eratu dute ('Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza Elkartea') Eskola Kirola elkarrekin sustatu eta kudeatzeko. **Kalitatearen** aldeko apustu sendoa egin dute, eta ildo horretan **Koordinatzaile Pedagogikoaren** figura kontratatu dute, udalaren bitartez. **Kirol Programari** dagokionez, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek nabarituko dute aldaketa nagusia; asteburuetako saioaz gain, astean zehar ere Eskola Kiroleko saio bat izango dute.

HIRU URTEKO LANAREN EMAITZA

Eskola Kirolak ibilbide luzea (45 urte) du Oñatin, eta eredu ere izan da beste hainbat herrirentzat. Baina 2015ean Oñatiko Kirol Plana egin zuen udalak, *Kirol Management* enpresaren bidez, eta bertan ikusi zen Eskola Kirola Programak hainbat gabezia zituela; adibidez, lotura falta ikusten zen astean zeharreko eta asteburuetako saioen artean (asteburuetako parte hartzea %80 ingurukoa da, baina astean zehar ez da %20ra iristen), eta batez ere Plangintza Orokor baten falta ikusten zen.

Beraz, herriko hiru ikastetxeek hausnarketa prozesu bat jarri zuten abian udalarekin eta Aloña Mendirekin batera, gabezia horiei erantzuteko asmoz, eta hiru urteko lanaren ostean proiektu berria aurkeztu dute. Eskola Kiroleko proiektuan jauzi kualitatiboa eman nahi dute, hurrengo

ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SU.KALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINDAK • NEURRIERA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labeen sarrak

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

ikasturtean abian jarriko diren zenbait berrikuntzekin.

ELKARTE BERRIA ERATU DUTE

Eskola Kirola Programaren helburuak eta eredia finkatu ondoren, herriko hiru ikastetxeek elkarte ofizial bat ('Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza Elkarte') eratzea erabaki dute, Eskola Kirolaren aldeko apustua behar bezala artikulatzeko, sustatzeko eta kudeatzeko. Izaera juridiko propioa duen elkarte da, eta hiru bazkidek osatzen dute: Urgain, Elkar Hezi eta Txantxiku ikastola.

Oñatin eskola adinean dauden ikasleen heziketa integrala lortzeko egitura sendo bat sortzea da elkartearen helburua.

Koordinatzaile pedagogiko bat egongo da, ikuspegi hezitzailea Eskola Kiroleko arlo guztietara (ikasleak, monitorea, gurasaok, epaileak) hedatzeaz arduratuko dena

BALIOAK ETA HELBURUAK

Eskola Kirolaren bidez herriko haurrek esperientzia anitzak eta positiboak bizitzea da helburua. Ildo horretan, kirol aniztasunaren aldeko apustua egiten dute, gazteek ahalik eta kirol gehien ezagutu eta probatzeko aukera izan dezaten. Ondoren, haur bakoitzak aukeratu ahal izango du gehien atsegin duen kirola, eta bertan espezializatzeko aukera ere izango du, kirol elkartearen bidez batez ere.

Ikasleen heziketa osoa sustatzea eta bizitzarako lagungarriak diren ohitura osasungarriak eta balioak (errespetua, lankidetzeta, talde-lana, konpromisoa, ardura, autokontrola...) transmititzea da Eskola Kirola programaren helburua. Eta euskara bultzatzea, kirol jardunaren bidez.

KIROL PROGRAMAREN BERRIKUNTZAK

Aldaketa nagusia LH 3-4 mailetakako ikasleek igarriko dute. Hauek '1+1 Eskaintza' izango dute; hau da, asteburuko saioaz gain, astean zehar ere saio bat egingo dute osagarri moduan (egun eta ordu ezberdinak daude aukeran, beste aktibitate batzuekin uztartu ahal izateko).

Astean zeharreko eta asteburuetako saioen arteko lotura indartzea da helburua. Modu horretan, gazteekin lan eraginkorragoa egin ahal izango da, saioen kalitatearen mesedetan.

Kirol aniztasunaren aldeko apustua egingo da (20 kirol edo jarduera landuko dira urtean zehar), eta topaketa bidezko heziketa sustatuko da; hau da, lehiaren presentzia jaitsi eta topaketa erako



Kirol programari dagokionez, LH 3-4 mailetakako ikasleek igarriko dute aldaketa nagusia, '1+1 Eskaintza' rekin; saio bana izango dute astegunetan eta asteburuetan

jardunaldiak bultzatuko dira. Lehiatzen hasi aurretik, kirol mota ezberdinak ezagutu eta gehiago ikastea da helburua.

KOORDINAZIO PEDAGOGIKOA

Kalitatearen alde egingo den apustu handienetakoa da hau. Udalak teknikari bat kontratatu du, koordinazio orokorrak arduratuko dena eta, gainera, ikuspegi hezitzailea Eskola Kiroleko arlo guztietara hedatzea izango da bere egiteko nagusietako bat.

Ikuspegi hezitzailea hiru lan lerrotan bideratuko da: *Ikasleen Heziketa* (kirola tresna oso baliagarria izan daiteke haurren heziketa borobiltzeko).

Hezitzaileen Formakuntza (haurrekin harreman zuzena



Etxe-Aundi
Hotela Jatorria **
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com



duten hezitzaileei formazio saioak eskainiko zaizkie eta jarraipen zuzena egingo da. Gurasoekin ere lanketa bat egin nahi da, guztiok helburu berdinarekin lan egiteko).

Epaileen Formazioa (Epaile poltsa egonkor bat osatuko da, eta beraiekin formazio saioak egingo dira, partidetan eman daitezkeen goerak nola kudeatu ikas dezaten).

KUOTEN IGOERA

Kalitatearen alde egingo den apustuak Eskola Kiroleko kuoten igoera ekarriko du. Arrazoiak hauek dira: monitore gehiago kontratatuko dira, formazioan ahalegin berezia egingo da, kirol saio gehiago eskainiko dira, eta koordinazioa hobetuko da. Horrek denak kuotak garestitzea ekarriko du; orain arte 45€ /60€-tan zeuden kuotak, 60€/85€tan egingo

dira hurrengo ikasturtetik aurrera.

Dena den, Eskola Kiroleko arduradunek garbi utzi dute, kuotak ordaintzeko zailtasuna duten familientzako diru laguntzak egingo direla (irizpideak zehaztu gabe daude oraindik), Eskola Kiroloren unibertsaltasuna bermatzeko; hau da, ez dadila inor gelditu Eskola Kirolean parte hartu gabe, kuota ordaintzeko zailtasunagatik.

Eskola Kirola programak 110.000 euro inguruko aurrekontua izango du 2018/19 ikasturtean. Udalak 57.000 euro (%57) ordainduko ditu, Foru Aldundiak 9.000 € (%8), eta kuoten bidez 32.000 € (%29) lortzea espero dute, eta gainerakoa enpresa pribatuen bidez.

ESKOLA KIROLA - 2018/19 IKASTURTERAKO ESKAINTZA

HH 5 Jolas Hezi (Psikomotrizitatea) **Astean 2 saio** **60 €** ikasturtea

LH 1-2 (Aurre-Benjaminak) Jolas Hezi (Jokuak) **Jolas Hezi** (Psikomotrizitatea) **60 €** ikasturtea

LH 3-4 (Benjaminak) **Multikirola Mendi Programa** **1+1 Eskaintza** Astegunetan saio 1 Asteburuetan saio 1 **85 €** ikasturtea

LH 5-6 (Alebinak) **Multikirola Mendi Programa** **Astegunetan saio 2** **Asteburuetan saio 1** **1+1 Eskaintza** **85 €** **60 €** ikasturtea

DBH 1-4 **Multikirola Fitness jarduerak** **Tenis txapelketa** **Mendi Programa** **Asteburu bateko eskaintza**

Ekainaren 11tik 20ra eman behar da izena

Irailean hasiko den 2018-2019 ikasturterako izen-ematea ekainaren 11tik 20ra egin beharko da.

OHARRAK:

- **LH 3-4** mailetan **1+1** eskaintza dago; hau da, astean zehar saio bat egingo dute, eta asteburuan beste bat. Beraz, izena emateko orduan, astean zeharreko talde batean eman beharko da izena.
- **LH 5-6** mailetan **hiru aukera** daude: aste barruko zerbitzuan, asteburuko saioetan, edo bietan eman ahal izango da izena.

PSIKOMOTRIZITATEA (HH 5): Astelehena eta Asteazkena (A taldea: 16:50-17:45 / B taldea: 17:50-18:45).

JOLASAK (LH 1): Astelehena eta Osteguna (A taldea: 16:50-17:45 / B taldea: 17:50-18:45).

JOLASAK (LH 2): Astelehena eta Osteguna (A taldea: 16:50-17:45 / B taldea: 17:50-18:45).

MULTIKIROLA (LH 3): Asteartea (A taldea: 16:50-17:45 / B taldea: 17:50-18:45) edo Asteazkena (C taldea: 16:50-17:45 / D taldea: 17:50-18:45).

MULTIKIROLA (LH 4): Asteartea (A taldea: 16:50-17:45 / B taldea: 17:50-18:45) edo Asteazkena (C taldea: 16:50-17:45 / D taldea: 17:50-18:45).

MULTIKIROLA (LH 5-6): Astelehena eta Osteguna (A taldea: 16:50-17:45 / B taldea: 17:50-18:45).

MENDI IRTEERA: Hilean behin.



HURRETIK

azken tertulia berezia



Gaztelekuan,
Gaztetxean
eta Makalena
elkartean
egindako
tertulietako
irudiak

Hurretik proiektua badoa aurrera, herrikoa, gertukoa, bertakoa den kultur ondarea transmititzeko ekinean. LH-1 eta LH-2. mailako ikasleei zuzendutako ikasmaterialari forma ematen ari zaio bete-betean ikastetxeekin elkarlanean, formatu digitalean, erakargarrian eta erabilgarrian. Urtea amaitzerako 8 unitate didaktiko ikastetxeen eskura egongo dira.

Baina *Hurretik* bere zentzu zabalenean ulertu behar da, eta ikastetxeetatik haratago du jomuga: herritarrengan. Horretan hasiak dira eta martxoan hiru tertulia antolatu ziren herritarren ekarpenak jaso eta Oñati herriaz hitz egiteko. Tertuliak arrakastatsuak izan dira, adin, jatorri eta pentsaera anitzeko 60tik gora lagun batu baitziren hiru saioetan. Oñatiarren aldetik harrera ona izan zuen ekimenak eta bizitako giroa ere aparta izan zen. Parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete bihotzez antolatzaileek.

Arrakasta hau oinarri eta jendea gaia jorratzen jarraitzeko gogoz geratu dela ikusita, azken tertulia berezi bat antolatuko da ekainean.

Tertulia berezi honetara gaia lantzen jarraitu nahi duen edozein herritar dago deituta. Oñatiarrak ezinbesteko bidelagun zaretelako proiektu honetan, Hurretik gizarteratu eta kaleetara, etxeetara, lagunartera eramateko ideiarik edo gogorik izango bazenu ez egin dudarik! Polita izango da!

'HURRETIK' TERTULIA BEREZIA

Ekainak 13, asteazkena, kultur etxeke atikoan, 18:30

*Bezeroen beharrei
erantzuteko prest!*



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

“Gatazka osteko lehen belaunaldiari zer transmititzen ari garen aztertzea da helburua”

SAMARA VELTE
KOMUNIKAZIOAN ADITUA



‘Oñatiko gazteria gatazka armatuaren aurrean. Gatazka ondorengo lehen belaunaldiaren diskurtsoa’ azterlana egiten ari da Samara Velte, Oñatiko Udala Grant bekaren bidez

ETA erakundearen amaiera izan da maiatzak utzi digun albiste nagusia. Euskal Herriko azken hamarkadetako historia baldintzatu du ETArekin jardunak, eta ziklo hori amaituta, errelatoa, memoria eta transmisioaren gaia da orain kezka nagusietako bat. Eta horrekin lotuta dago, hain zuzen, Oñatiko Udalak eta Lege Soziologia Institutuak ematen duten bekaren bidez Samara Velte zarauztarra egiten ari den azterlana.

Zergatik aukeratu duzu gai hori?
2000. urtetik hona jaiotako

pertsonak ez daukate lotura zuzenik euskal gatazka armatuaren garaiarekin. Beraz, garai horri buruz eraikiko duten memoria, kanpotik (familia, hedabideak, eskola...) iristen zaizkien diskurtsoen bidez osatuko dute. Hau da, diskurtso sozialen esparrura ari gara mugitzen, eta hori da nik aztertu nahi dudana; alegia, nola ari den transmititzen memoria hori hurrengo belaunaldietara.

Zein da ikerketaren helburua?
Kontua da, ez dugula tresnarik sortu, ez maila instituzionalean, ezta sozialean ere, memoria transmititzeko, eta familien



Geure artean dugu, jada, euskal gatazka armatuaren garaiarekin lotura zuzenik izan ez duen lehen belaunaldi heldua

Emakume jubilatuen ekarpena aztergai

Oñatiko Udala Grant bekak duen 4.000€ko dotazioa bi ikerlanen



artean banatzea erabaki du epaimahaiak. Eta horietako batek Oñatiko emakume jubilatuek herriari egiten dioten ekarpena aztertuko du, identitatea, kultura, gizartea eta ekonomia mailan. Leopoldo Cruz Valbuena mexikarrrak egingo du azterlana. Bestalde, iazko bekari esker burutu ziren bi azterlanak (‘Oñatiko hirigintza eta etxebizitza merkaturia’ eta ‘Pakistango inmigrazioa’) euskaraz ere kontsulta daitezke jada.

esku geratu da ardura hori. Baina familia askotan ‘auto’-inposatutako isiltasuna egoten da, eta, ondorioz, belaunaldi bat daukagu bere testuinguru politikoa eta historia hurbila ulertzeko tresnarik gabe.

Helburua da, identifikatzea gabezia horiek non dauden, eta horren arabera proposatu ahal izateko esku hartze batzuk, adibidez, hezkuntzan.

Nola egiten ari zara ikerketa? Diskurtsoaren analisiaren bidez. Elkarrizketatzen ditut 15-20 urteko gazteak (banaka edo taldeka), eta gero diskurtso horietan nabarmentzen edo

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

errepikatzen diren patrioiak identifikatzen ditut: ezagutza, identifikazioa, legitimazio estrategiak...

Ikastetxeek lagundu didate bitartekari lanak egiten, eta oso pozik nago Oñatiko gazteen erantzunarekin. Maiatza eta ekaina bitartean egingo ditut elkarrizketak, udan analisiak, eta irailean zehar emango dugu emaitzen berri.

Lan zabalago baten zati bat da azterlan hau, ezta?

Bai. Nire doktorego tesia egiten ari naiz gai honen inguruan, Euskal Herri osoko gazteak elkarrizketatuz. Baina uste dut interesgarria dela maila lokalean ere horrelako kezka bat abiatzea, instituzioak eta ikastetxeak ere has daitezten jabetzen, zer den belaunaldi berri hauek dakitena, eta nola esku-hartu daitekeen gazteei tresna gehiago emateko.

Ingurumen irteerak gazteentzat



Aurten ere Ingurumen Irteerak gertatzen dihardugu! Uztaila lagun artean, giro onean eta naturan gozatzeko aukera luzatzen dizuegu. Gehienez 20 pertsonako taldeak osatuko ditugu, eta Oñati inguruan ibiliko gara goiz pasan, ingurumenarekin lotutako gaiak jorratzeko irteera desberdinak eginez. Animatu zaitzete! Aurtengo uztaila ere aprobetxatzeko gogotsu gabiltza eta. Izen-ematea dohainik izango da. Iazko moduan email edo facebook bitartez egin dezakezue, eta aurten baita gaztelekuan ere ekainaren 25a baino lehen. Joango gara poliki-poliki informazio gehiago luzatzen.

Oñati eta bere altxorak ezagutzeko. UZTAILEAN

» Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKA
LEZIOA MAIATZ ARBUIA/INDUSTRIALIA ZIKLOA

75
75 URTEZ ARBUIA/INDUSTRIALIA ZIKLOA

Izen-ematea
Ekainaren 4tik 15era

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkeritza • Salmenten Kudeaketa • Nazioarteko Merkataritza 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikak eta Automatizatuek • Automatizazioa eta Robotika Industriala • Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa • Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/ogh
ngarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmh@mondragon.edu
943 71 21 91 + 664 277 592

ANTIXENA GAZTETXEA

ikasturteko balantzea

Ezin konta ahala ekitaldi antolatu ditu aurten ere Antixena Gaztetxeak: hamarnaka kontzertu, hitzaldiak, autoformakuntzak, bertso saioak, liburu aurkezpenak, bazkari eta afariak, mendi irteerak, DJ gauak, antzerkiak, haurrentzako ikuskizunak... Aipamen berezia merezi dute Errusiako iraultzaren 100. urteurrena gogoratzeko jardunaldiek, 'Oñati Bizirik-4' diskoak, martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekitaldiek, eta 'Hasteko bost!' gaztetxearen 5. urteurrena ospatzeko ekitaldiek. Bai, dagoeneko bost urteko ibilbidea egin du Antixena gaztetxeak, eta erreferentziatzko gune bilakatu da Oñati biziartzeko, harreman sareak sustatzeko eta proiektu ezberdinak abian jartzeko.



Antixena gaztetxean urtean zehar antolatu diren hainbat ekitalditako irudiak

EKAINEKO EGITARAUA

EKAINAK 2, LARUNBATA (21:00)
BASAKRISTAUPUNK jaialdia: *Pecozza United, Krustazeos, Patronal Punk* eta *Baserriko Ollaxkue labien*

EKAINAK 6, ASTEAZKENA (19:00)
Udako egitaraua zehazteko bilera

EKAINAK 15, OSTIRALA (21:00)
HANGOVER FEST jaialdia: *Mendeku itxua The eleventh plague, Minerva* eta *Berri Zaharrak*.

EKAINAK 28, OSTEGUNA
Nazioarteko sexu askapenaren eguna. Erakusketa eta tailerra. Orientazio sexuala eta genero identitateak. Gorroto delituei begirada orokorra.

DATA ZEHAZTEKE
Herri bat hainbat jatorri egitasmoaren baitan **DOMINIKAR ERREPUBLIKA**ri eskainitako saioak.

Iritsi da Ekaina, eta honekin batera amaiera eman diogu Antixena Gaztetxeako ikasturteari. Aurtengoa urte berezia izan da, dakizuen bezala, Irailean 5 urte bete zirelako Oñatiko gazteok Antixeneko eraikina hartu eta Gaztetxe egin genuenetik.

Urte hauetan harreman eredu berriak sortzeko, herritarren arteko saretzea bultzatzeko eta helburu politiko eta sozialak gauzatzeko aukera emanaz, herriaren beharrak asetzeko beharrezkoa den espazioa eraiki dugu. Autogestioa oinarri hartuz, bost urte hauetan Oñati biziartzeko, geure artean ezagutzeko eta proiektu ezberdinak abian jartzeko ezinbestekotzat jotzen dugun espazioa.

Azken ikasturteari begira, Irailetik hasi eta gaur arte, hainbat izan dira burututako ekintzak; bertso saioak, kontzertuak, haurrentzako pailazoak, mendi irteerak, Abenduko urteurren ospakizuna... Baita aisialditik haratago doazen beste hainbat autoformakuntza, hitzaldi, mahai-inguru, afari... ere.

Guzti hau posible egiteko, ordea, ezinbestekoa izan da proiektu honetan sinetsi eta bat egin duen jende guztia. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiogu ekintza guzti hauetan parte hartu duten herritar guztiei; bai antolatu, bai lan egin eta baita bertaratu den orori.

Amaitzeko, udara begira ere, urtero bezala egitarau txiki bat antolatuko dela eta, zuen proposamen eta nahiak entzuteko gogoz gaude. Laster zabalduko dugu gonbidapena, beraz, animatu eta hurbildu asanbladara!

Egunsentiak dantzan harrapa gaitzala!

Gazte Asanblada

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaituguncz, Arrasaten bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018

**ZUATZU**
KLINIKA

www.clinicazuatzu.com



Skate parkearen gaineko berdegunea txukunduko du udalak

Hiru gune bereiztuko dira bertan: Jolas lekua, atsedeen gunea eta belardia

Ibarra zelaian, Enpresagintza fakultatearen ondoan eta *skate* parkearen gainaldean dagoen berdegunea txukuntzen ari da udala.

Iazko udan, tirolina bat eta hiru picnic-mahai ipini zituen bertan, eta ikusita gune hori erreferentziatzeko toki bihurtu dela hainbat herritarrentzat, berdegunea txukundu, egokitu eta elementu berriz osatzea erabaki da orain.

Ondoko planoan ikusten den moduan, hiru gune bereiztuko dira bertan: 1. *Zelaia* (solarium moduan erabiltzeko belardia); 2. *Jolasak* (jolas gunea, aisialdi aktiboa eta gazteak elkartzea bultzatuko duten elementuekin); 3. *Atsedeen gunea* (modu lasaian egoteko gunea, irakurtzen, jaten, solasean...).

Tirolina gunea ere txukundu egingo da eta piñu-azal geruza bat jarriko da zoruari.

Kimu Bat enpresak udalarentzat idatzi duen proiektuak *parkour*-a praktikatzeko gune bat egokitzeko aukera ere jasotzen du, (tirolinaren ondoan kokatuko litzateke) baina aurtengo behintzat ez da egingo. Dena den, udalak ez du baztertzen datorren urtean egitea.



SKATE PARKEAREKIN LOTU

Berdegunea eta honen beheko aldean dagoen *skate* parkea lotzea da aktuazio honen helburuetako bat.

Gaur egun ezponda edo talud batek bereizten ditu bi gune hauek, eta goiko planoak erakusten duen moduan, egurrezko eskailera mailak eta begiratoki moduko eserlekuak (egurrezko habeak) egokituko dira bertan, goiko eta beheko espazioak elkartu eta batetik besterako transitoa samurtuz.

Paisajismoan aditua den Kimu Bat enpresak idatzi du proiektua, eta enpresak berak egingo ditu berdegunea txukuntzeko lanak 39.928 €tan (+BEZ). Lanak hasita daude jada, eta uztaierako berdegunea erabiltzen hasteko modua egotea da asmoa.



Ekainaren 1ean jarriko dituzte martxan ur txorrotak

Larrañako Ur Uhinak jolas parkearen ordutegia eta erabilera arauak onartu ditu udaleko kirol departamentuak. Ekainaren 1etik urriaren 14ra egongo dira martxan ur txorrotak haurren jostagarri, baina ordutegia desberdina izango da, hilabete eta egunen arabera:

- Ekainaren 1etik 22ra: 13:00 - 21:00
- Ekainaren 23tik irailaren 9ra: 11:00 - 21:00
- Irailaren 10etik urriaren 14ra: 13:00 - 21:00
- Larunbata, igande eta jai egunetan: 11:00 - 21:00



ORRATI
Jubilatu haia

UR UHINAK

Jolas eremuko arauak

- Ekipamendua errespetatu eta zaindu
Respetaratu eta cuida el material
- 3 urteik behekoak nagusien zaintzapean
Los niños de 3 años o menos necesitan supervisión
- Hondakina dagoen edukiontzira botatu
Los residuos van a la contenedor correspondiente
- Ez da edateko ura
Agua no potable
- Ez jan eta ez edan jolas eremuan
No comer ni beber en el área de juego
- Ez erre jolas eremuan
No hacer fuego en el juego
- Txakurrak sartzea debekatua
Prohibido introducir perros

943 71 63 75 zubikoat@orriadi.eus

Ur uhinak jolas parkearen erabilera arauak adierazten dituen panela jarriko du udalak bertan

SAN MARTIN GUNEAN

Azken etxebizitzak!!

egaratulur
Construcciones | Eraikuntza Lanak

Informazioa: 689 420 761

Logo: B

Herribuseko geltokien seinalizazioa hobetu du udalak

Zerbitzuaren nondik-norakoak gogora ekartzeko solasaldi informatiboak antolatu ditu



Irudikoa bezalako 20 zutabe jarri ditu udalak ibilbidean zehar

Udalak garraio publikoaren eta, zehazki, Herribusaren aldeko apustua egiten jarraitzen du. Zerbitzua abian jarri zuenetik hainbat egokitzapen egin ditu (ibilbidean, geltoki kopuruan...) herritarren eskari eta beharrei erantzunez, eta orain geltokietako seinalizazioa hobetu du, 3 markesina eta 20 zutabe jarritz ibilbidean zehar. Geltokien kokalekua, izena eta bertatik pasatzen diren zerbitzu eta ordutegi berri adierazten da paneletan.

GEO-ANALISIA

Herribuseko geltokien kokalekua kontuan hartuz, geo-analisia egin du udalak biztanleriaren datuekin gurutzatuz, eta hauxe da emaitza: herritarren %86 geltoki batetik 200 metro baino gutxiagora bizi da. Portzentaia %90era igotzen da, 300m.-ko erradioarekin egiten bada azterketa.

Zubillaga, Olabarta eta landa auzoetako biztanleria kontuan hartuz egin da azterketa. Beraz, garbi geratzen da Herribusa hurreko zerbitzua dela herritar askorentzat, eta kolektibo anitz baten mugikortasuna, autonomia eta bizi-kalitatea hobetzen dituela.

SOLASALDI INFORMATIBOAK

Herribus zerbitzuaren nondik-norakoak gogora ekartzeko solasaldi informatiboak antolatu ditu udalak. Maiatzaren 29an egin zen Lagun Lekun eta ekainaren 7an egingo da Pake Lekun (18:15).



Herritarren %86 bizi dira Herribusaren geltoki batetik 200 metro baino gutxiagora. Portzentaia %90era igotzen da, 300 m.-ko erradioarekin egiten bada azterketa

‘MERKATARI’ aplikazioa herriko komertzioa sustatzeko

Tokiko komertzioa indartzea helburu duen ‘Merkatari’ mugikorrekoko aplikazioa sustatuko du udalak herriko dendariaren artean.

Maiatzaren 28an aurkeztu zitzaizen aplikazioa merkatariei, eta orain formakuntza saioak egingo dira aplikazioa hobeto ulertu eta erabiltzen ikasteko. Ekainaren 4, 5, 7 eta 8an izango dira saioak Euskaldun Berria gelan (15:00-16:30). Bi saio eginda nahikoa da.

Ondoren, komunikazio kanpaina egingo da herri mailan, proiektua herritarrei zabaltzeko.

‘Merkatari’ aplikazioa ez da *online* salmenta egiteko aplikazio bat; komertzioaren eta bezeroen arteko komunikazioa hobetu eta bezeroak dendetara erakartzeko tresna bat da.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

Aran Hernandez

Zure ETXEA eguneratu, guztiak berriez bizi ezabiz bere salmenta eduki alkatari erakunde

626 114 382
aranhernandez@aranhernandez.com

» **PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK / Zertan inbertitu 500.000 €**

Jasotako proposamen guztien aurkezpen publikoa egingo da ekainaren 4an

» **Herritar guztientzako saio irekia izango da, Gaztelekuan.**

» **Leheneste faserako irizpideak zehaztuko dira bertan.**

Udal Aurrekontueako 500.000 euro zertan gastatu erabakitzeko parte hartze prozesuak lehen fasea burutu du; proposamenak egitekoa. Guztira 376 proposamen jaso dira, eta horien guztien aurkezpen publikoa egingo da ekainaren 4an Gaztelekuan (18:30). Saio irekia izango da, herritar guztientzat.

Proposamenak aurkezteaz gain, bigarren faserako irizpideak finkatuko dira ekainaren 4ko saiora bertaratzen diren herritarren artean. Jasotako proposamen guztiak garatzea ezinezkoa da 500.000 eurekin; horregatik, irizpide batzuk finkatu behar dira lehentasunak markatzeko, eta horixe egingo da ekainaren 4ko saioan, dinamizatutako ariketa baten bitartez. Horregatik, garrantzitsua da saio horretara perfil ezberdineko herritarrak joatea, irizpideak finkatzeko prozesua aberatsagoa izango delako ikuspegi desberdinak egonda.

Ekainarem 11, 12 eta 13an beste hiru saio egingo dira Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta 18), 18:30etan. Arloka egindako proposamenak baloratuko dira ekainaren 4an finkatutako irizpideen arabera. Hona bilera bakoitzean landuko diren arloak:

Ekainak 11: Aisialdia, berdintasuna, elkarbizitza, euskara, haur eta gazteak, herriko jaiak, hezkuntza, kulturartekotasuna, lana eta ongizatea.

Ekainak 12: Argiteria, azpiegiturak, irisgarritasuna eta mugikortasuna.

Ekainak 13: Diru laguntzak, kirola eta ingurumena.

**376 proposamen jaso dira, guztira;
60 saio irekietan, 59 webgunearen
bidez, ea 257 postontzietan**



BERDINTASUN KONTSEILUA

sortzeko dinamizazio
saioak antolatuko
ditu udalak

Herritarrez osatutako **Berdintasun Kontseilua** eratu nahi du udalak, berdintasun arloko udal politiken gidaritza markatu, eta herrian modu eraginkorragoan eragiteko helburuarekin.

Udaleko Berdintasun sailak herrian eragiteko gaitasuna garatu nahi badu, beharrezkoa ikusten da behetik gorako erabakimen logikarekin bat egingo duen egitura bat sortzea.

Proposamenak egitea, eztabaidatzea, egindakoak ebaluatzea sinergiak sortzea eta berdintasun arloko gidalerroak finkatzea izango da Berdintasun Kontseiluaren egitekoa.

Aurrena, baina, kontseiluaren izaera eta funtzionamendua zehaztu behar dira, eta horretarako dinamizazio saioak antolatuko ditu udalak datozen asteetan.

Urte askotan zuekin

Jalone San Miguel Ugarte

 **MAPFRE**
OÑATI

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 732 733 712
argitagarbi@hotmail.com

 **ARGITAGARBI**

Almaraz
inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Zubillagako urbanizazioa berritzeko hirugarren faseko lanak esleitu ditu udalak

Construcciones Artzamendi S.A. enpresari esleitu dizkio udalak Zubillaga auzoko bizitegi eremua berritzeko hirugarren faseko lanak 175.275 eurotan (BEZ kanpo). Hirugarren eta azken fase honek Zubillagako erdiguneko eremu nagusia hartuko du; San Pedro elizaren atzealdeko jolas eremua, auzo-etxea eta 35-38 zenbakidun etxe-blokeen ingurua. Oinezkoen ibilbideak berriitu eta irisgarritasun baldintzetara egokitzea da aktuazio honen helburua, bertako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko. Lanak lehenbailehen hastea da asmoa, eta lau hilabete iraungo dute.



Lanak lehenbailehen hastea da asmoa eta lau hilabetez luzatuko dira. Erdiguneko eremu nagusia hartuko dute lanek

Lehen sektoreko laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Lehen sektorea sustatu eta berritze-ko udaleko Ingurumena eta Landa Garapena sailak ematen dituen diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Aurten 43.000 € bideratuko ditu udalak laguntza hauetara, bost ataletan banatuta: nekazaritza ustia-lekuak modernizatzeko (berrikuntza teknologikoak, belaunaldi arteko erreleboa...), bertako produktuak merkaturatzeko, nekazaritza erabilerako ura ordaintzeko, putzu septikoak garbitzeko, eta ermiten argindar kostua ordaintzeko.

Ustialekuak modernizatzeko laguntzen atalean, eskatzaileak 40 urte baino gutxiago badu, %20 arte handitu ahal izango dira laguntzak. 2017an eta 2018an egindako inbertsioak diruz lagunduko dira. Abenduaren 31ra arte eskatu ahal izango dira laguntzak udal bulegoetan.

Udako asteburu eta jai egunetan goizeko 9etan zabalduko da kiroldegia

Zubikoa kiroldegiko urdako ordutegian aldaketa bat jarriko dute abian aurten. Hala, ekainaren 16tik uztailaren 30era arte asteburu eta jai egunetan goizeko 9:00etan irekiko da kiroldegia, eta ez 10:00etan, orain arte egin izan den bezala.

Bestalde, gogoratu igerileku ondoko belardia zabalik dagoela jada, eguzkia hartu nahi dutenentzat. Ekainaren 4tik aurrera, igerilekuko beirazko atea ere zabalduko dute.

SOROSLE ZERBITZUA INDARTU

Igerilekuko sorosle zerbitzuan errefortzua jarriko du udalak udaldian. Hala, ekainaren 15etik uztailaren 27ra, eta abuztuaren 25etik irailaren 9ra, bigarren soroslea ariko da arratsalde (16:30-19:30), asteburu eta jai egunetan izan ezik.



Ekainaren 9an zabalduko da bainu denboraldia Usakon

Ekainaren 9tik irailaren 9ra luzatuko da bainu denboraldi ofiziala Usakon. Hiru hilabete horietan sorosle zerbitzua jarriko du udalak bertan, egunero, astelehenetik igandera, arratsalde, 15:00etatik 20:00etara. Gainera, data jakin batzuetan (ekainak 23-abuztuak 5 / abuztuak 25-irailak 9) bigarren sorosle bat ere egongo da 16:00etatik 20:00etara.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERRAK, LUB FLORANTAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DI SEINATZAILA ETA MONTATZAILA
SERRALDEAK, KAMINAK ETA ASKEZ GELUGA
OBLAKUA 12 B 4 esk. - ZUCERO ERABI - GIBELKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



Zahartze aktiboa sustatzen duen Bizipoz programa arrakastaz burutu da

Udaleko Ongizate sailak babesten duen 'Bizipoz' programaren 5. edizioan 18 gizon-emakumek parte hartu dute, gai ezberinen inguruko tailer teoriko-praktikoak egin dituztelarik: *smartphone* eta tabletentzako aplikazioak (*Whatsap...*), ekonomia eta pentsioak, oinordetza eta testamentuak...

Horrez gain, gizarte onurako bi proiektu ere jarri dituzte abian: **Martxa Nordikoa** kirola praktikatzeko taldea, eta 'Creciendo con Arte' izeneko taldera eratu da, garapen pertsonala eta artea uztartzen dituen ekimena.

EMAKUME ZIRKULUA

'Creciendo con Arte' taldeko kideek antolatuta, 'Emakume Zirkulua' izeneko ekimena egingo dute ekainaren 13an (Eltzian, 19:00). Emakumeen arteko konfiantzazko gune bat sortu nahi dute, aurreiritziak eta beldurrak alde batera utzi, eta elkarri lagunduz emakumeak ahalduntzen lagunduko duena, taldearen babesean. Erropa erosoak, esterilla eta kojín bat eramatea gomendatzen da. Emakume guztiak daude gonbidatuta.

100 urte bete ditu Jesusa Urrestarazuk

Ondoko argazkian ageri den Jesusa Urrestarazuk ehun urte bete zituen apirilaren 13an, eta halakoetan ohitura den moduan, udalaren lore sorta eta oroigarria jaso zituen, Ongizate batzordeko buru Susana Altuna eta gizarte zerbitzuetako arduradun Itxaro Leibarren eskutik. San Martin goiztuan bizi da Jesusa.





ORDUTEGIA:
 Asteegunetan,
9:00-00:00
 Asteburu eta jaiegunetan,
11:00-2:00

ERRESERBAK:
 Helbidea,
Atzeko Kale, 32 behea
 Telefonoa,
943 71 60 78

- AZALPEN OHARRA -

Ohar honen bidez, **barkamena eskatu nahi dizuegu** martxoaren 17an eta 18an gure jatetxean jan ondoren urdail-hesteetako ondoeza izan zenuten guztioi.

Zuei eta baita oñatiar guztioi ere adierazi nahi dizuegu **ondoezaren eragilea II motako Adenovirusa izan zela**, zeinaren eramaile asintomatikoak baitziren gure sukaldariak.

Adeitasunez,

Consuelo eta Asier
Iturritxo tabernaren jabeak



Eraso sexisten aurkako ikurra kiroldegian jarri dute

Kiroldegiko bi kantxen arteko horman ipini dute eraso matxistak salatu eta emakumeen askatasuna aldarrikatzen duen panela. Horma-irudi hori 2016ko azaroaren 25ean margotu zuten, Emakumenganako Indarkeriaren Aurkako egunean, Gorritxitxiko tunelean, 'Libria izan gura dot, ez balientia' leloarekin. Baina ez zuen askorik iraun bere tokian, ezezagun batzuk erretzen saiatu zirelako. Orain, ikur bihurtu den irudi hori kiroldegian jartzea erabaki du Sare Feministak eta udaleko Berdintasun sailak

Mugikoratasun jasangarria saritzen du ULMAk langileen artean

Sistema berritzailea jarri du abian ULMAk mugikoratasun jasangarria saritzeko. *Travel Club* programaren antzeko mekanika aplikatuz, etxetik lanerako joan-etorria modu jasangarrian (oinez, bizikletaz, patinetez, Lanbus zerbitzua erabiliz, edo autoa partekatuz) egiten duten langileek puntuak jasoko dituzte, egindako kilometro kopuruaren arabera (4 ziklo oinez egindako kilometro bakoitzeko; 2 ziklo bizikletaz, korrika edo patinatuz eginez gero, eta ziklo 1 autoa partekatuz edo Lanbus bidez eginez gero).



batutako puntu horiek opariengatik trukatu ahal izango dituzte merkatalgune eta zerbitzu ezberdinetan.

ULMAk Oñatin dituen negozio guztiek dute bidegorria eta, oso erraza da autorik gabe iristea. Ohitura osasungarriagoak eta jasangarriagoak sustatzea da ekimen honen helburua, Oñatin auto gutxiago ibil daitezen eta herri garbiagoa izan dadin laguntzeko.

EH Bilgunea zabalik egongo da ostiraletan

EH Bilduk Kale Barrian egokitu duen lokala, EH Bilgunea, zabalik egongo da ostiral arratsaldeetan (18:00-20:00) herritarren proposamen, zalantza eta kezka jasotzeko. EH Bilduren proiektu politikoarekin identifikatuta sentitzen diren guztien topagune izan nahi du EH Bilguneak, eztabaida sustatu eta inteligentzia kolektiboa eraikitzeko.



Honduras eta Nepalen aldeko kanpainak

Hondurasen aldeko elkartasun kanpaina burutu du Ulma Fundazioak ACOES erakundearen bitartez. Ulmako ehunka langilek emandako ipuin, nobela, entziklopedia eta hizkuntzak ikasteko DVDak batu dituzte hango ikastetxeetan banatu eta irakurzaletasuna sustatzeko. Ordenagailuak ere bidali ditu Ulmak.

NEGUKO ARROPAK NEPALERAKO Hermansoloñak Kale Zaharrean daukan lokalean Nepalera materiala batzen hasi dira: neguko txamarrak, kamiseta termikoak, jertse sendoak, polarrak, lo-zakuak, mendirako oinetakoak... Asmoa da batutako materiala udazkenean bidaltzea 'Oxigenoa euskarari 6.000 metrotan' egitasmoaren baitan.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Urmeen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Edukiontzi zuriek funtzio berria dute

Arropa eta oinetakoez gain, edozein objektu berrerabilgarri utzi ahal izango da bertan (liburuak, jostailuak, gailu elektrikoak...)

Debagoieneko mankomunitateak eraldatu egin ditu gure kaleetan dauden edukiontzi zuria, aurrerantzean izango duten funtzio berriaz ohartarazteko. Orain arte arropak, oinetakoak eta, oro har, ehunkiak jasotzeko erabili izan da edukiontzi zuria, baina aurrerantzean edonolako objektu berrerabilgarri txikiak jasotzeko ere erabiliko da: liburuak, jostailuak, gailu elektriko eta elektronikoak, bisuteria...

Garbi geratu behar da, hala ere, ezingo direla bertan utzi ebaki dezaketen elementuak (aiztoak, kristalak, baxerak...).



Ekainaren 10eko giza katean parte hartzeko deia luzatu du Oñatiko Gure Esku Dago ekimenak

Hamar egun besterik ez dira geratzen ekainaren 10eko Giza Katerako eta oraindik jende dezente behar da Oñatiko herriari dagozkion bi kilometroak osatu ahal izateko. Azken egunera arte egongo da aukera izena emateko, baina autobusez joan nahi izanez gero, ekainaren 1a da txartela eskatzeko azken eguna. Gogoratu, oñatiarrok Zigoitin (Araba) osatu behar ditugula bi kilometro, eta horretarako 1.000 lagun inguru beharko direla. Beraz, animo!

Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, Donostia, Bilbo eta Gasteiz hiriburuak lotuko ditu (201,9 km) ekainaren 10eko giza kateak, eta mugarrira izan nahi du erabakitze eskubidearen alde. Elkarrekin etorkizun demokratiko, justu eta duina eraikitze herri honek duen egarriaren erakusgarri izan nahi du.



Autobus txartelak eskatzeko azken eguna: ekainak 1

ETXiAN
Oñatiko inmobiliaria berria
Donostian etxea erosteko ere, aukera onenen informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net
Etxian

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

PPNV: 'Printzipio' kontuak eta benetako lehenetsunak

Nerea Zubia eta Igor Tomé,
EH Bildu Oñati

Berriro egin duzue. Hamaikagarrenez. Ez dugu esango gehiegi harritu gaituela, tamalez ohituta baikaude zuen aurpegi bikotzeko joko politikora. Egun berdinean, goizean Gasteizen erabakitzeko eskubidearen alde agertu eta, arratsaldean, 155. artikuluen bultzatzaileei eskutik eman Madrilen.

Ez da Europako gobernu ustelena (datuek diote, ez guk) biziraupena bermatzen duzuen lehenengo aldia. Hala ere, azken erabaki hau bereziki larria da. Alderdi Popularraren aurrekontuak babestuko zenituztela iragarri zenutenean, ahalegin handia egin zenuten erabaki hori justifikatzeko. Normala, gauzak dauden bezala egonda, aurpegia eta sormena behar dira horrelako hautu bat defendatzeko.

Zuen "garaipena" saltzeko, Madrilgo gobernuari bi baldintza jarri zenizkiotela esan zenuten: pentsioen igotzea eta 155. artikuluen indargabetzea. Duintasuna elkarteko kideek gogor kritikatu zuten pentsioen bueltan egin zenuten akordioa (Goiena, 1018/05/04). Argi utzi zuten soilik bi urteko iraupena izango duen igoera sinboliko horrek ez duela pentsioen arazoa inolaz ere konpontzen. Gainera, hortik gutxira Gasteizko parlamentuan gutxieneko pentsioak 1080 eurokoak izatea bermatzeko mekanismoak ezartzeari uko egin zenioten. Propaganda hutsa.

155. artikulua indargabetzeari buruz, zer esango dizuegu ba? Zuentzat

"printzipio kontua" omen zen, igaro ezinezko marra gorria. Guk dakigula, artikulua horrek indarrean jarraitzen du, eta gainera Kataluniar herriaren subirautea bahituta daukan interbentzio horren alde berretsi dira PP, PSOE eta Ciudadanos duela gutxi. Eta jakin badakizue, gaur Kataluniarri gertatu zaiona bihar lasai asko hemen ere gertatu dakigukeela. Hala ere, zuek aurrera.

Bi horietaz gain, azpimarratu duzuen beste lorpen bat Madrilgo gobernuak "Euskadirentzat estrategikoak" (horretaz ere luze hitz egin dezakegu) diren inbertsio batzuk onartu izana da. Zuek ere ondotoxoa dakizue horrelako tratuen betetze maila zein izan den orain arte...

Eta bakegintzaren alorrera bagoaz, hain justu ere Rajoyk UPNri presoen egoeraren inguruan EAE eta Nafarroako lehendakariarekin ez duela hitz egingo ziurtatu dion aste berdinean eman diozue eskua.

Benetan kezagarria da PNVren zuzendaritza azken urteetan hartzen ari den bidea. Bizi ditugun garai korapilatsu eta gorabeheratsu hauetan, kezkatuago dago bere interes alderdikoi eta pribatuei erantzuteko espainiar oligarkiarekin dituen harremanak ondo zaintzeaz, Euskal herritarren oinarritzko eskubideak eta etorkizuna bermatzeaz baino. Berriro ere erakutsi duzue zuen lehenetsuna zein den, eta zuen hitzak zenbat balio duen.

Aldaketa garaia iritsi da

Lourdes Idoiaga, Oñatiko EAJ-
PNVren udal taldea

5 urte bete dira EH Bilduren gobernuak Oñatin atez ateko sistema inposatu zuenetik hondakinak batzeko. Bost urte hauetan inposizioa eta deserosotasuna izan dira nagusi herriar askorentzat; datuek, gainera, agerian utzi dute EAJk hasiera-hasieratik defendatu duen mezua: edukiontzi bidezko sistema eraginkorra dela, atez ateko sistema bezainbestekoa gutxienez.

Esate baterako, Debagoieneko Mankomunitateak argitaratutako azken datuei erreparatuta, Bergaran otsailen % 82,43koa izan da edukiontzi bidez egindako bilketa selektiboaren indizea. Oñatin, berriz, % 81,54koa atez atekoarekin. Hau da, Bergaran baino baxuagoa.

Gogoratu behar da, gaur egun, Oñatin eta Antzuolan baino ez dagoela atez ateko sistema. Izan ere, gainerako udalerririk guztiek edukiontzi bidezko sistemaren alde egin dute. Oso oso datu esanguratsua da gaikako bilketa, batez beste, % 80,03 ingurukoa izatea Debagoienean.

Gero eta oñatiar gehiagok eskatu du hondakin bilketa sistema aldatzeko eta atez atekoa baztertzeko. Are gehiago, jakin dutenean Debagoieneko beste herrietan eta Oñatin oso antzeko indizeak lortu direla askoz ere bilketa-sistema erosoagoa erabilita. Izan ere, gainerako herrietan zaborra ez da egoten derrigorrean etxean 2 edo 3 egunetan, pilatuta usain txarra sortzen. Ez da kalera irten behar eguneroko gure zabor-ontzia esekitokian jartzeko, eta, ez da jaso behar

goizean berriz. Ez dago haizeak noranahi eramandako ontzia bilatzen ibili beharrik.

Hondakinak gaika batzea hobekuntza da, zalantzarik gabe baina atez atekoak, gaur egun, ez dio balio erantsirik eskaintzen gaikako bilketari. Hortaz, nola justifikatzen du EH Bilduren udal-gobernuak azken bost urteetako inposizioa? Zergatik jarraitzen dugu Oñatin askorentzat hain deserosoa den sistema horren zigorrarekin?

Iritsi da hondakinak batzeko sistema aldatzeko unea. Eta iritsi da, batez ere, herritarrengan konfiantza jartzeko unea. Oñatiko familiak oso arduratsua gara, eta gaika batzen jarraituko dugu! Garaia da EH Bilduren gobernuak oñatiarrenganako konfiantza agertzeko: aukera eman behar die Oñatiko familiei frogatzeko edukiontzididez ere oso datu onak lortzen direla (edo atez atekoarekin baino hobek). Aldaketarako garaia da!

PNV, partidu INPOSATZAILEA

Ander Lizarralde eta Andoni Agirre

Errauskailuaren kontra borrokan Eraritua garenontzat iraingarria da Lourdes Idoiak maiatzaren 25ean GOIENAN idatzi zuen eskutitza. Aurrekoa behar da, PNVko bozeramaile zaren neurrian, herritarrei esateko zuek proposatzen zenuten sistemarekin Bergarako edo Oñatiko emaitzak lortu daitezkeenik (%80tik gora).

Bergaran txip bidez KONTROLATUTAKO edukiontzien sistema dago.

OHARRAK, DEIALDIAK ETA AZKEN ORDUKOAK

1961eko IRAILETIK 1962ko ABENDURA JAIOTAKOEN KINTTADIA

Ekainaren 16an egingo dute kinttadia 81eko kinttoek. Araotz auzoko Saloian egingo dute bazkaria. Batzuek oinez joateko asmoa dute, Urrexolan salda hartu eta kanaletik buelta. Animo! Izena emateko, deitu **659 556 475** (Angel) zenbakira.

1968an JAIOTAKOEN KINTTADIA

Aurten 50 urte betetzen dituzte 1968an jaiotakoek, eta urtemuga borobila behar den bezala ospatuko dute urriaren 20an. Hauxe da plana: 10:00 Irteera posta geltokian; 11:00 Bisita gidatua Heredad de Ugarte bodegan, hamarretakoarekin; 15:00 Bazkaria upategian bertan; 21:00 Oñati. TXAKEn afaria pintxoekin (taberna beraientzat itxiko da). Bi aukera daude: egun osoko ospakizuna (80 €) edo Txakern 21:00etatik aurrera (20 €). Izena emateko, sartu dirua (zure izenarekin) kontu honetan: ES1930350005300051091846 (Laboral), uztailearen 15a baino lehen. Animatu!

Zuek (PNV), ordea, Oñatirako proposatu izan duzuen sistema BORONDATEZKO gaikako bilketan oinarritzen da.

Eta badakizu ze emaitza ematen dituen sistema honek? Donostian: %39, Elgoibarren: %47, Zarautzen: %41, Hondarribian: %48... Herri guzti hauek PNV-k gobernatzen du.

Egia balitz zuen helburua dela Bergarakoarekin lortzen diren emaitzak eskuratzea, azalduko ote diguzu zertarako zabilatzaten 200.000 tona erretzeko errauskailu bat eraikitzen? Gipuzkoa osoan %80tik gora birziklatuz gero 60.000 tona errefus besterik ez lirateke sortuko!

Errauskailua INPOSATUZ (AHT eta beste askorekin batera), sektore jakin

batzuek egundoko dirutzak poltsikoratzen dituzte; eta, jakina, horretxegatik ez zaizue inoiz komeni izan Gipuzkoan %80 birziklatzerik.

Besteei inposatzaile deitzeko daukaguzen joera kontuan hartuta, gogoratu dezagun zer egin berri duzuen Madrilko aurrekontuekin. Zeuen negozioak aurrera eramateko, Kataluniako herriari indarraren legea INPOSATU dion gobernuari sostengua eman diozue eskal gizartearen gehiengoaren nahiaren kontra.

Lourdes Idoia, esan nahi dizugu, zuek, besteei beren egitasmoak inposatzen dituztela esaten zabilatzatenok, hemen zuek zaretela benetako INPOSATZAILEAK!





OÑATIKO TXORIMALOEN INGURUKO HAUSNARKETARAKO DEIA

- Arazerixan -

Auzoetako jaien hasierarekin batera, Oñatin horrenbesteko arrakasta duten txorimaloak ere hasi dira herriko kaleetan zehar gora eta behera.

Urteetan zehar haurrek gozatzeko eta ondo pasatzeko izan den jolas eta ohitura bat, azkenaldian jolasetik gutxi du, eta jazarpenarako ekintza moduan garatu da zenbait kasutan. Zoritxarrez, behin baino gehiagotan, txorimalo jantzita irten diren haurrak, talde handian irainduak eta mespretxatuak izan dira, euren adinekoengatik edota inkulso apur bat gazteagoengatik, txorimaloak jendearen eta berdinen aurrean guztiz babesgabe eta bakarrik geratuaz. Egoera honek, txorimalo doazen haurrak jolasaren parte izatetik, irain eta barre guztien erdigune izatera pasarazi ditu hainbat kasutan, horrek haur guztiengan dakartzan ondorioekin (bai haur erasotu, bai erasotzaile eta baita pasiboengan ere). Baita txorimaloen izaeran eta helburuan duen ondorioekin, jakina.



Sotoko eskaladarako txoko berria.

Egoera honen aurrean, eta beste zenbait pertsona eta eragileekin hitz egin ostean (guraso, irakasle eta abar), Oñatiko Gazte-lerkuko hezitzaileok hausnarketa batera dei egin nahi dizuegu haurren eta jaien inguruan, era batera edo bestera, lanean zabilatzaten edo zerikusia duzuen guztioi, baita Oñatiko Udaleko agintariei ere. Egoera honi buelta ematea, eta txorimaloak guztientzat ondo pasatzeko tresna izatea izan behar dugu helburu. Gure ustez, ezinbestekoa delako txorimaloen izaera berreskuratzea, eta beharrezkoa ikusten dugulako gutxienezko zenbait neurri hartzea azkenaldian ematen diren talka hauekin bukatzeko. Neurri horiek gainera, interesatutako eragile guztion artean adostea egokiena izango dela ere argi ikusten dugu.

OÑATIKO GAZTELEKUKO SOTOAREN INGURUKOAK

Honen bidez, alde batetik, Gaztelekuan egin dugun azkeneko berrikuntzaren berri eman nahi dizuegu, Sotoan jarri berri dugun eskalada txokoaren inguruan ari gara oraingoan. Berau koltxoneten gunearen bukaeran topatuko duzue, eta lerro hauen bidez Sotora etortzera eta boulderrean jolastera animatu nahi zaituztegu, haur zein guraso.



Sotoa egoera honetan jaretea onartezina da!

Sotoarekin jarraituz, gogoratu nahi dizuegu Sotoko arauak errespetatu behar direla, eta arauak betearazteko arduradunak gurasoak edo umeen arduradunak zaretela!! Gu, gure partez, Gazte-lerkuko Sotoan behin eta berriz berrikuntzak eta hobekuntzak txertatzen ditugun bitartean, Sotoko erabiltzaileen partetik behin eta berriz arau-haustek eta bertako materialaren hondatzeak pairatzen ditugu. Ez da lehenengo aldia Kontzeju-ren bitartez gure kexa azaltzen duguna, eta ez gaude egoera hauek onartzeko prest. Orain arte zenbait neurri hartu izan ditugu, eta beraz, hemendik aurrera neurri zorrotzagoak hartuko dira egoera honekin bukatzeko. Sotoko arauak, materiala eta bertako elkarbizitzaren erantzuleak berau erabiltzen duzuen umeen arduradunok zarete, ez ahaztu!

EKAINEAN...

TOPALEKUAN: [8] Ping-pong txapelketa. **[15]** Arazerixan; Oñatik-tak. **[16]** "Oxigenoa euskarari 6000 metrora"-ren aldeko kontzertua (19:00-22:00). **KUBOAN: [10]** Polizia eta lapurrak txapelketa. **[22]** 6.mailakoen azken festa (17:00-20:30). **GIPUZKOAKO KOSTALDEAN: [26-27-28]** 6.mailakoen udako irteera. **ARANTZAZU, URBIA ETA INGURUAK: [ZEHAZTEKE]** III. Gaztekonkis (ekaineko azken astean). **GAZTELEKUAN: [11-22]** Ilustrazio eta komiki tailerra ingelesez.

Denborak nor bere lekuan jartzen du

Martxoaren 8an ikusitakoa eta zenbait sententzia judizialen ondoren emandako erantzunen inguruan asko esan eta idatzi da komunikabideetan, baina badago zerbait nire ustez behar den beste ez dena azpimarratu eta komenigarria dela aipatzea.

Duela lau hamarkada sortu ziren mugimendu feministaren lehen erakundeak han eta hemen. Orduetik, lanean aritu izan dira egoera zailetan genero berdintasunaren alde, ulertuak izan gabe eta askotan zenbaiten edo askoren mespretxua jasota. Zenbait aldiz entzun izan dugu lau zoroen (femeninoan) gauzak zirela?. Gure herrian ere. Berrogei

Luis Guridi



urte ondoren gauzak erabat aldatu dira, zorionez, eta ezer ez da berdin izango ondoren.

Uste dut legezkoa eta beharrezkoa dela mugimendu haien sortzaile eta lehen bultzatzaile izen ziren ehunka emakumeen errekonozimendua egitea. Baita ere urteetan zehar lan isilean aritu izan direnei. Azken hilabeteetan zenbait nazioarteko ekimenen aipamen berezia egin da (#MeToo eta antzerakoak) eman diren mobilizazioen sustatzaile izan direlakoan. Ezin da ukatu bere garrantzia izan dutela arazoaren kaleratzean baina, uste dut, ezagututako mobilizazioen oinarria urteetan zehar egindako lanean

dagoela, ezin dela ulertu gertatutakoa mugimendu feministak gizaratean sortzen joan den eraldaketa kontuan hartu gabe.

Baina ez da kasu bakarra. Hirurogeita hamarreko hamarkadan mugimendu ekologista jaio zen planetaren iraunkortasunaren inguruan sortzen ari ziren arazoak gizarteratu eta salatzeako asmotan. Orduan ere garapena ulertzen ez zuten lau hippy zoroen gauzak zirela zioten. Bost hamarkada ondoren, milaka artikulu zientifiko idatzi dira, ospe handiko nazioarteko erakunde sortu (IPCC besteak beste) eta zenbait gailur bideratu (2015eko Parisko Gailurra) eta akordio adostu.

Ez dezagula beste bost hamarkada itxaron behar izan feminismoak planteatzen duen biziaren iraunkortasuna eta ekologistek defendatzen duten planetaren iraunkortasuna bat direla konturatzeko eta aintzat hartzeko. Bestela, beste berriz, denborak jarriko du nor bere lekuan.

‘Lehendakaria’ eta ‘Barkos’

Denboran ez da luze **Juan Jose Ibarretxe** EAEko Lehendakari ohiari entzun niola atzera begirako autokritika: EAEko Lehendakaria zelarrik, askotan errepikatu zuela “yo soy el lehendakari de todos los vascos” (“euskar herritar guztien presidentea naiz ni”), eta bizitzaren joanak erakutsi diola, ez zela oso egokia izan; testuingurua ezaguna dugu: behin eta berriz alderdi espainiar nazionalistetatik entzun behar izaten zuen ez zela bera herritar guztien lehendakaria, euskal abertzaleena baino ez.

Baina egun, beste testuinguru politikoa (-militar) batean ere, nire uste xumean, oraino, lar bider jan behar izaten ditugu Herri gisa gaitz berbera kutxatzen diguten antzeko esakuneak.

Juankar Olaeta



Metonimia/sinekdoke-nahaste tematia nonbait? Kasu honetan, osoa adierazteko -Euskal Herria- zati bakartxo bati -EAE-erreferentzia egitean azaltzen dena.

Edo agian okerragoa? *Lacan* psikoanalistaren teoriaren arabera, darabilgun hizkuneak islatu egiten du nolabait gure inkontzientea, metaforarekin batera *metonimiak* bereziki. **Herri inkontziente kolektiboari** libreki aplikaturik, kolonizatuek, egunero mendetan hainbeste pozoi irentsita, batzuetan garatu egiten dute **auto-gorroto** moduko bat, zeinak **bere izate osoa** onartzea eta izendatzea eragozten dion, are gehiago nor-izate horretatik pentsatzea, erabakiak hartzea, bizitzea. Hauxe ote arrazoa? Zer esango

duke *Lacanek* nire hizkuneek islatzen dutenaren inguruan?..

EITBn, telebista eta irrati, solaskide (euskal) abertzaleak, esatariak, euskaraz zein gaztelaniaz, Bertiz-koaz, tai gabe, “*El Lehendakari eta Barkos*”: **tripako mina** (eta pena). Gizonezkoak ziren. **Eme**-ki eta **Nafarroatik** baino ez datozke herri-osabidexkak.

Honengatik guztiagatik, bejondeizula Ibarretxe Lehendakaria eta eskerrik asko! Autokritika horrek euskal bide-libretu zarea dio, eta autokontzientziaren liberatzen laguntzen diguzula. Zilegi bekit aitortzea askotan hauteman dioadala Ibarretxeri nolabaiteko duintasun mirestekoa, **Matalas**-jitea ...? **Duintasuna**.

Nabarralde Fundazioak Oñatin maiatzaren 25-26an egindako ‘*Memoria Lekuak*’ Jardunaldia, izan bekigu **Foru-Haritzaren** zainak emeki sendatzen joateko aukera-txerto..



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

Zubillagako jaietan jokatu da aizkora eta sega apustua

» 10 kana-erdiko ebaki eta beste hainbeste denbora segan egin beharko dute » 2.000 euro jokoan

Iazko azaroan bota zioten elkarri erronka, eta data ere finkatu dute jada. Ekainaren 30ean izango da, arratsaldeko 5ak aldera, Zubillagan, bertako jaiak direla aprobetxatuz.

Eta bi bikote nor baino nor: Arkaitz Lizarralde oñatiarra eta Alex Azkargorta aretxabaletarra alde batetik, eta Daniel España eta Jose Maria Benito segoviarrak bestetik.

Egin beharreko lana hauxe: kana-erdiko 10 enbor ebaki beharko ditu bikote bakoitzak, eta gero segan egin beharko dute, aizkora azkarren amaitzen duen bikoteak adina denbora; hau da, aizkora lanak 30 mintutan amaitzen baditu lehenengo bikoteak, beste horrenbeste denbora izango du segan aritzeko, eta beste bikoteak, adibidez, 5 minutu gehiago behar baditu enborrak ebakitzen, 5 minutu gutxiago izango du belarra mozteko. Pisu gehien mozten duenak irabaziko du apustua. Bikote bakoitzak 1.000 euro jarriko ditu jokoan.

LEHIA OREKATUTA

Lehia orekatuta egongo dela uste du Arkaitz Lizarralde oñatiarrak. "Aizkora gu baino gehiago dira; 5 bat minuturen alde aterako digutela uste dut, eta segan saiatu

beharko dugu apustuari buelta ematen".

Segoviarrak izan arren, Danielek eta Txemak ondo ezagutzen dute herri kirolen munduan. Azken hiru urteetan Euskal Herriko aizkolarien txapelketetan parte hartzen ari dira. "Segan egiteko ohiturarik ez dute, baina badakit ondo prestatzen ari direla, eta behin baino gehiagotan etorri direla hona entrenatzera" dio Lizarraldek. Enborrak egoki ebakitzen asmatzea ere inportantea izango dela uste du oñatiarrak. "Kana-erdiko enborrak oso exigenteak dira, eta asmatu egin behar da kortearekin, ezpala neurri egokian hartuta, denbora gehiegi galdu nahi ez badugu".

TXAHAL-PINTXOAK

Zubillagako saihesbideko zubipeko belardian jokatu da apustua. Zelai egokia da perimetro osoan jendea ikusten egoteko eta apustuaz gozatzeko. Zubillagan jaiak izango direnez, festa girorik ez da faltako, eta, gainera, txahala erreko dute burduntzian goizean goizetik, eta pintxoak dastatzeko aukera egongo da, apustua girotzeko. Ikusmin handia piztu du desafioak. Ea ikuskizun ederraz gozatzeko aukera dugun.

Bi bikote ariko dira nor baino nor: Arkaitz Lizarralde (Oñati) eta Alex Azkargorta (Aretxabaleta), Daniel España eta Jose Mari Benito segoviarren aurka. Zubillagako saihesbideko zubipeko belardian jokatu da.



'OÑATIKO 10 KILOMETROAK' / Ekainak 2

Emakumezkoak itzuliko dira Korpus bezperako lasterketara

» Emakumezkoen (18:00) eta gizonezkoen (19:00) lasterketak jokatu dira, 10km.-ko zirkuitu homologatuan

Emakumezkoen itzulera izango da, zalantzarik gabe, Korpus bezperako lasterketako aurtengo berri nagusia. Azken lau ekitaldietan gizonezkoen lasterketaren aldeko hautua egin behar izan du *Antxintxiketan* taldeak, dirubaliabideek lasterketa bakarra antolatzeke aukera ematen zuelako, eta gizonezkoetan aukera handiagoa dagoelako 10km.-ko distantzian.

Zorionez, baina, *Antxintxiketan* ez da geldi egon, eta ate ezberdinak jo ondoren, berriz ere Euskal Herriko erdi-fondoko emakumezko atleta onenetakoak Oñatiko kaleetan ikusteko aukera izango dugu, udalak egindako aparteko ahaleginari eta herriko komertzio eta enpresa ezberdinen laguntzari esker.

EMAKUMEZKOEN LASTERKETA

Elena Loyo gasteiztarra izango da faborito nagusia. Aurten Espainiako azpitxapeladuna izan da maratoian, Berlinen Europako txapelketarako minima lortu du, eta Euskal Herriko markarik onena du 10km.-tan.

Baina aurkari gogorrak izango ditu, Maider Leoz iruñear gazteak eta Sian Robertson gasteiztarrak oso maila ona eman baitute Espainiako 10km.-ko txapelketan. Eta izar horien artean etxeko bi korrikalari izango ditugu, Amaia Bernal eta Marisol Ramos, beteranoetan lortu berri dituen Espainia eta Europako tituluak estreinatuz.

GIZONEZKOEN LASTERKETA

Sheffield-en (Ingalaterra) bizi den Iraitz Arrospide billabonarra saiaturko da iaz lortutako txapelari eusten. Sasoi onean dago; Sevillako maratoian 2.16.24 eta Valentzian (10 km.) 30.27 egitetik dator. Baina lehiakide gogorrak izango ditu honek ere; Ander Sagarzazu (30.26), Imanol Cruz (30.12) eta Kamel Ziani beteranoa ez dira urruti izango. Azpimarratzekoa da, gainera, Eric Martin oñatiar gaztea ere tartean izango dela, antolatzaileek gonbidatuta, 5.000 m.-ko Euskadiko txapelketa (sub 20) irabazi berritan.

Antxintxiketan taldea ahalegin handia egiten ari da eta ikuskizuna aparta izango da aurten ere. Goiz partean (12:00) gazteentzako lasterketak jokatu dira plazan.



5000 m.-ko Euskadiko txapelketa irabazi du Eric Martinek



Iazko irailean hasi zen federatu mailan lehiatzen, eta denbora gutxi behar izan du Eric Martinek bere dohainak erakusteko. Ikasteko eta hobetzeko oraindik asko daukala dio berak, batez ere teknikoki, baina Javi Gomez eta Mikel Quelle entrenatzaileekin egiten ari den lana bere fruituak ematen hasi da. Kross denboraldi polita osatu du (8. sailkatu zen 20 urte azpikoen Euskadiko txapelketan), eta pistan 5000 metroko Euskadiko txapelketa irabazi du (16'30"), ustekabea emanez.

Korpus bezperako lasterketan parte hartzeko gonbitea luzatu diote antolatzaileek, eta ilusio handia du herritarren aurrean aritzeko; 33 minutura hurbiltzea izango da bere helburua.

Aloña Mendiko gainerako korrikalariak ere emaitza oso onak lortu dituzte Gipuzkoako txapelketan. Igor Mugarzak 1500m.-ko hesidun lasterketa irabazi zuen, Nahia Lasagabaster 2. sailkatu zen 3000 m.-tan, eta 800m.-koan Aitor Diaz de Monasterioguren 2. sailkatu zen eta Beñat Guridi 4.

Bestalde, Marisol Ramosek bere palmaresa gizentzen jarraitzen du, eta W-55 beteranoen mailan Europako maratoi erdiko txapelketa (1.30.13) eta 10.000 m.-ko Espainiako (39.54) irabazi ditu.



Europako maratoi erdiko eta Espainiako 10.000m.-ko txapelketak irabazi ditu Marisol Ramosek



ANTON SIERRA | Herriko Futbol Txapelketa

“Erreleboa emateko unea iritsi da”

> 30 bat urte daramatza beteranoen Herriko Futbol Txapelketa antolatzen, horietatik 20 arduradun bezala, eta erreleboa emateko ordua dela erabaki du Anton Sierrak. Laguntzen jarraitzeko prest dago, baina gazteek erantzukizuna hartzea nahi du.

Noiz eta nola hasi zinen Beteranoen txapelketa antolatzen?

Gure taldea (Takateko) jokatzen hasi zenean, Fraka Motzek antolatzen zuen txapelketa. Hauek utzi zutenean, zozketa bidez hasi ginen batzordeak osatzen. Gure taldetik, Fernando Markinez ‘Bere’ eta ni joaten ginen bileratarara.

Gustatu egiten zitzaidan giroa, eta juntan jarraitzea erabaki nuen.

Urte batzuetan

Jose Manuel Ruiz izan zen arduraduna, eta harek uztean neuk hartu nuen ardura, 1996 aldera.

Zer da zuretzat Herriko Futbol Txapelketa?

Niretako bezala, Oñatiko gazte eta kuadrilla askoren bizitzako parte inportantea dela uste dut. Sozialki herriak daukan aktibitate aberasgarrienetako bat dela esango nuke. Txapelketari esker lagun asko egin ditut,

eta harreman sare zabalak egin ditu txapelketan parte hartu duen jende

askok. Gogoan dut, bitxikeria moduan, behin, San Migel jaietako tanborrada egunaren bezperan, geure tanborrada egin genuela txapelketako lau taldek (*Txopepo*, Pottoka, *Zakilizoro* eta *Takateko*). Sobrioren tabernatik abiatu eta herri osoan zehar ibili ginen giro ezinhobean. Txapelketak sortu dituen harremanen adibide bat da.

Urte asko daramatzazu txapelketako arduradun gisa, eta erreleboa emateko unea dela erabaki duzu, ezta?

Bai. Gero eta gogorragoa egiten zait makineria edo engranaje guztia martxan jartzea denboraldi hasieran; udaletxean eskaera egitea, ekipoen deialdia egitea, Aloña Mendirekin egotea... Uste dut beharrezkoa eta komenigarria dela belaraldi aldaketa. Gazteek konpromiso maila handiagoa hartu behar dute.

Laguntzen jarraitzeko prest zaude, baina ardura guztia zure gain hartu barik, ezta?

Bai. Lan bolumena ez da handia. Nik erakutsiko diet zein diren urtean zehar egin

beharreko lanak, eta prest nago laguntzen jarraitzeko, baina arduradun bezala ez. Arazoren bat sortzen den bakoitzeko neuk eman behar izan dut aurpegia urte askotan udalaren eta Aloña Mendiren aurrean, eta urte asko dira, jada. Askok maite dut txapelketa hau, baina uste dut ona dela jende gazteak hartzea ardura.

Aurtengo txapelketa ere amaitu da. Nola baloratu duzue?

Oro har, balorazioa ona da. Kirol mailan dena ondo aterata da, baina pertsonalki, uste dut txispa edo gatz pittin bat falta zaiola. Finalen egunean oso giro ona egon zen Azkoagainen, baina urtean zehar ez da girorik egoten. Partiduen ordutegiak ere ez du laguntzen; askotan larunbat eta igande iluntzetan jokatu behar izaten ditugu, eta horrek ere ez du laguntzen.

Azken urteetan behera egin du talde kopuruak. Ze irakurketa egiten duzu?

Behera egin du nabarmen, bai; 1990. hamarkadan 18-20 talde izaten ziren; 2001ean goia jo gneuen 25 ekiporekin, baina ordutik hona gutxituz joan dira. Aurten 12 izan dira.

Epaileak ere gutxituz doaz. Oraintsu arte 5 izan ditugu, eta seriotasuna eman diote txapelketari, baina aurten bi bakarrik

“Sozialki herriak daukan aktibitate aberasgarrienetako bat da beteranoen txapelketa”

“Laguntzeko prest nago ni, baina gazteek konpromiso maila handiagoa hartu behar dute”

(Moli eta Mattin) aritu dira; lan handia egin dute, baina jende gehiago behar da.

Horregatik esaten dut, gazteek konpromiso maila handiagoa hartu behar dutela; bestela pikutara doa txapelketa.

Txapelketa Larrañan jokatzeak aukera ere baloratu izan duzue. Zertan da?

Egia da, guk uste baino txikiagoa geratu zela Larrañako futbol zelaia, eta hara joatekotan Futbol-7 eran jokatu beharko litzateke.

Hala ere, uste dut ona izango litzatekeela; ordutegia hobea izango zen, eta jende gehiago animatuko zela uste dut; Azkoagainen jokatzeak 15 lagun behar dira talde bakoitzean, eta gaur egun oso zaila da 15 lagun konprometituta edukitzea. Gainera, gaur egun bizia hartu du San Loren-

tzo inguruak (Eltzia, Lagun Leku, tabernak..) eta horrek ere lagunduko luke.

Beteranoetako juntak proposatu zuen bere egunean Larrañara joatea, baina talde gehientsuenak Azkoagainen jarraitzearen alde azaldu ziren.

Amaitzeko?

Nirekin edo gabe, aurrera jarraitu behar duela txapel-

ketak. Dagoeneko tradizio bat da Oñatin, eta merezi du halako aktibitate kolektibo bat bizirik mantentzea. Gazteak ilusioarekin ikusten ditut, eta polita da kuadrillen artean egoten den pike sanoa, baina, esan bezala, konpromiso mila handiagoa hartu behar dute gazteek. Espero dut urte askotan jarraitzea ‘Beteranoen’ txapelketak.



SASQUATCH TXAPELDUN

Sasquatch taldeak bere ibilbideko aurreneko liga irabazi zuen maiatzaren 5ean. 3-1 menperatu zuten Zalaparta finalean, eta **Iban Agirre** taldekideak jaso zuen partiduko jokalaririk onenaren saria. Kopako finalean berriz, **Txuskos** talde beteroa nagusitu zen (2-0) Kalañatasaray-ren aurka. **Aitor Saenz** (Txuskos) izan zen onena. Aurretik, kontsolazio finalean, **Albok** taldea penaltietan nagusitu zitzaion Hangolari.



UNAI URIBEEtxEBARRIA
(Zalaparta)
Gogegile onena



AITOR SANCHEZ
(Albok)
Atezain onena

ESKER ONEZ. Herriko Futbol Txapelketako juntak eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman duten etxe hauei: Harripe, Ongi, Ona, Xaguxar, Luis, Arkupe, Txaketua, Iturri, Pako, Aker, Portu, Oñati, Arrano, Boga, Iturritxo, Garoa, Aldapa, Helmuga, Lizarralde Kiroiak, Mendizabal kiroiak, Caravanas Oñati, Alzu Super BM, Urrutxi, Astore, Gereta ardoak, Aranburu bitxitegia, Codorniu, Natra-Zahor Ezpeleta, Ulma Forja, Aloña Mendi eta Udala.

PILOTA

Oñati-Oiartzun Final laurdenetan

Bidania-Goiatz kanporatu ostean, Herri Arteko pilota txapelketako final 1/4etara sailkatu da Oñati, eta iazko azpitxapelduna, Oiartzun, izango du aurkari. Ekainaren 1ean (22:00) jokatuko dira joanekoak Zubikoan, eta hilaren 11n itzulerakoak Oiartzunen. Zaletuen laguntza beharrezkoa izango da.

AUTOMOBILISMOA

Udanako Igoera ekainaren 23an

Udana Automobilismo Taldeak antolatuta, ekainaren 23an jokatuko da Udanako XIII. Igoera, Euskadiko txapelketarako puntuagarria. Euskal Herriko piloturik onenak ariko dira bertan; tartean hainbat oñatiar. Goiz partean (10:30-12:30) autoen egiaztapena egingo da plazan. Eguerdiko 13:15etan autoak Udanaruntz igoko dira eta 15:00etan hasiko da lasterketa.

TXIRRINDULARITZA

Kadeteen Euskadiko txapelketa Oñatin

Ekainaren 10ean Olakuako XXXII. saria jokatuko da, Kadete mailako lehen urtekoena (16:00) eta bigarren urtekoena (17:30). Bietan ere Euskadiko txapela egongo da jokoan.

caravanas  oñate



• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zuhaiztia, 25 • Tel: 943 71 63 50

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zuhaiztia, 25 • Tel: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



EUSKAL MITOLOGIA, Ganbara Txikik kontatua

» Orain arteko kale-ikuskizun handiena eskainiko du Ganbara Faktoriak ekainaren 29an » **Kirrukuako** berdegunean izango da eta euskal mitologia izango du ardatz

‘Euskal Mitologia. Gure Historia’ izeneko ikuskizuna eskainiko du Ganbara Faktoriak ekainaren 29an, udaleko kultura sailak antolatzen duen ‘Kalean’ egitarauaren baitan. Ikuskizun berezia izango da. Eta eskenatokia izango da berrikuntza nagusietako bat, espazio ireki batean egingo baita, Kirrukuako berdegunean (Garayko etxeetan). Lorategiko txoko desberdinetan egingo da emanaldia: errekatxoa, zuhaitzak, basoa, zelaia... Eta gune bakoitza behar bezala girotuta egongo da.

Izenburuak aditzera ematen duen moduan, euskal mitologiaren inguruko musikala izango da. Euskal mitologiako pertsonaia nagusiak (*Mari, Tartalo, Lamiak, Amalur, Jentilak, Sugaar, Basandere...*) ardatz hartuta, gure herriko tradizioan eta historian leku nabarmena izan duten sinesmen, pertsonaia mitiko eta elezaharren erreposao egingo da musikaren bidez.

Narratzaile batek gidatuko du ikuskizunaren haria, eta, gainera, pantaila batzuen bidez irudiak proiektatuko dituzte, ikuskizuna osatzeko. Argiztapenak ere garrantzia handia izango du ikuskizunean eta, pertsonaia mitologikoei bizia emateko, antzezlan motzak



**Musika, antzerkia
eta irudi nahiz
argi efektuak
uztartuko dira
ikuskizunean**

egingo dituzte eskenatoki ezberdinetan.

Ganbara Txiki abesbatzako neska-mutilak izango dira protagonista nagusiak, baina Ganbara eta Hots abesbatzetako zenbait kidek ere parte hartuko dute, denak Aitor Biainen zuzendaritzapean.

Bi urte darama ikuskizun hau prestatzen Ganbara Faktoriak. Hainbat bertsolari, idazle eta musikagileren laguntzarekin, ikuskizun honetarako propio sortu dituzte testuak eta musika.

Musikaren bidez euskal mitologiaren berezitasunak erakustea da helburua, baina Ganbara Txikik taularatu dituen gainerako ikuskizunek bezala, beste helburu batzuk ere baditu: haur eta gazteak musika koralaria erakartzea, musika koralaren bidez estilo desberdinak jorratu daitezkeela erakustea, gaztetxoak herri mailako ekitaldietako partaide sentiaraztea, euskarazko haur literatura sustatzea, eta haurrentzako material musikal berria eskaintzea, besteak beste.



BIDEAN argazki liburua aurkeztuko du Oñatin Miren Pastorrek



Miren Pastor (Iruñea, 1995) argazkilariak udal liburutegian aurkeztuko du (ekainak 15, 18:30etan) *Bidean* proiektuko hirugarren liburua. Arte Ederretan lizentziatua, 2010an hasi zen *Bidean* proiektua lantzen, eta hiru argazki-liburu osatu ditu. Aldaketa kontzeptuarekin lotuta dagoen lana da; natura eta gizakien arteko loturaz, eta elkarri eragiten dieten zikloez hitz egiten du. Europako argazki talentu gazteen saria jaso zuen Pastorrek 2016an.

Korpus eguneko dantzetan emakumezkoek parte hartuko dute aurreneko aldiz

Dantzarien ikuspuntutik historikoa izango da aurtengo Korpus jaia, emakumezkoek ariko baitira aurreneko aldiz dantzari. Garai berrietara egokituz, Oñatz Dantza Taldeak urrats bat eman nahi izan du parekidetasunaren bidean, eta, hala, aurtengo neskek eta mutilak berdintasunean ikusiko ditugu dantzan prozesioan eta aurreko egunetako dantza saioetan.



Korpus Eguneko bisita berezia

Ekainaren 3an (9:45), turismo bulegoan (5€/p). Gehienez 10 pertsona. Erreserba egin behar da: 943 783453/turismo@onati.eus

'Oñati, muino ugariko tokia'

Turismo bulegoak antolatutako bisita gidatua, ekainaren 16an (17:00), turismo bulegoan. Erreserba egin behar da.

Bisita bereziak

Arrikutz eta Aitzulon

Ekainaren 16an (9:30) Espeleoabentura irteera Arrikutzko koban.

Ekainaren 17an (9:30) 'Aitzulo, Debagoieneko leihoa'. Erreserba egin behar da turismo bulegoan

UDA HONETAN ...

... ZEUR EGA NATU!

UDA KO EGA IKASTAROA - 2018

Uztailaren 2tik 27ra
Goizeko 8:30etik 13:00era
80 ordu

Matrikula epea: Ekainaren 4tik 26ra
Prezioa: 116€

Bidebarrieta, 18
Tel: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

AGENDA

06

EKAINA



ODOL ATERALDIA

> **EKAINAK 8 / 17:00**
Enpresagintza fakultatean,
17:00etatik 19:00etara.

HAUR IKUSKIZUNA

> **EKAINAK 2 / 18:00**
'BURUTIK JOTA'



Trakolo antzerki taldeak 'Burutik Jota' ikuskizuna eskainiko du. Familia giroan gozatzeko zirko ikuskizuna da. Munduko gizonik indartsunea eta akrobazia nahiz malabare ariketa ikusgarriak eskainiko dituzte, umore giroan beti ere. xxxxxxxxxxxxxx

Narrasti eta anfibioak ezagutzeko irteera

> **EKAINAK 3 / 10:00**
Arantzazuko Parketxean

Gipuzkoako Parketxe Sareak antolatuta, gure inguruko narrasti eta anfibioak ezagutzeko ibilaldia egingo da igandean. Ander Izagirre adituak gidatuko du ibilaldia, eta Aizkorri-Aratz natura parkean daukagun aberastasun herpetologikoa ezagutzeko aukera egongo da, espezie ezberdinak bereizten ikasiz. Zailtasunik gabeko irteera izango da, adin guztietako pertsonentzat. Prezioa, 5 euro. Izena emateko: 943782894 / 699335183 / arantzazu@gipuzkoamendi.zmendi.net

KONTZERTUAK

> **EKAINAK 1 / 19:00**
DOMEKETARROK
Oñatiko Domeketarrok taldeak kontzertua emango du Portu kaleko plazan.



> **EKAINAK 22 / 22:00**
THE NEKROBABIES
Legazpiko Hard Rock / Punk Rock taldearen kontzertua. Pako tabernan

> **EKAINAK 22 / 18:30**
MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK
Ikasturte amaierako kontzertua eta plaza-dantzen saioa Foruen enparantzan.

JAIALDIAK

> **EKAINAK 16**
ELKAR HEZI EGUNA
Ikasle, irakasle, guraso eta bestelako langileek Elkar Hezi Eguna ospatuko dute hilaren 16an. Elkar Heziko I. Olinpiar jokoak, euskal dantzak, yoga eta drone tailerrak eta beste hainbat ekitaldi izango dituzte goizean zehar. Zubikoa kiroldegian egingo dute bazkaria, musikak girotuta, eta ohiturari eutsiz, Batxi-2ko ikasleak omenduko dituzte. Aurretik, ekainaren 8an, Haur Hezkuntzako jaia (Txiriburduntzi jaia) ospatuko dute, eta hilaren 14-15ean HH eta LHko ikasleen jaialdiak izango dira.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



AUZOETAKO JAIK

> OLAKUA / Ekainak 8-10

Ekainak 8 19:00 Txorimaloak, 19:30 Presoen aldeko elkarretaratzea; 22:00 Kontzertuak (BrokenLegacy / Boot Boys / Gatillazo); **Ekainak 9.** 10:45 Haur jolasak; 12:00 Dantzariak; 17:00 Haurrentzako tailerrak; 19:00 Txorimaloak eta talogileak; 20:30 Erromeria (Miren, Agur eta Oier / Joxelu Anaiak). **Ekainak 10.** 12:00 Haurren mendi bizikleta irteera; 12:30 Meza Bidaurretan; 13:00 Euskal parrilla; 13:00 Herri kirol erakustaldia eta bertsolariak; 16:00 Non gorde ote da erreka' erakustaldia; 16:30 Mus txapelketa eta Txirrindulari proba; 18:30 Maider Zabalegi, kontzertu akustikoa.

> ZUBILLAGA / Ek. 29-Uzt. 1

Ekainak 29 19:00 Pello basurdearen igoera; 19:30 Meza. Ondoren barbakoa herrikoia eta trikitilariak; 22:00 Zine emanaldia. **Ekainak 30** Egun osoan zehar umeentzako jolasak (puzgarriak, kart-ak...); toka txapelketa haurrentzat; 17:00 Herri kirol apustua eta ostean txahal pintxoak; 19:30 Erromeria Gau-argirkekin. Mozorro gaua eta su artifizialak. **Uztailak 1** 11:00 Meza eta ondoren luntxa, pilota partiduak, dantzariak eta nagusientzako toka txapelketa. Mekalki enpresari esker ona; 17:00 Zinta lasterketa eta Mus txapelketa; 19:00 Kontzertu akustikoa elizan.


KORPUSAREN INGURUKO ARGAZKI ERAKUSKETA

> EKAINAK 18-UZTAILAK 1 Kultur etxean, 18:00-20:00

Gipuzkoako Argazkilari Elkartek antolatuta, 'Corpus Christi, prozesio, tradizio, folklore, erlijiositate eta dantzaren nahastea' izenburu duen argazki erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean. Bederatzi argazkilariren lanak dira, tartean Juan Antonio Unzurrunzaga Bergaran bizi den oñatiarrarenak.

ZINEA

> EKAINAK 13 ETA 14 / 19:30 'ARIZMENDIARRIETA, EL HOMBRE COOPERATIVO'



MCCren sortzaileetako bat izan zen Jose Maria Arizmendiarraren bizitza jasotzen duen dokumentala. Kultur etxean

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Liburua
"Los desterrados"



Gazte literatura
"Sara"



Liburua
"Atlas de las constelaciones"



Poesia
"Emakume burugabea"



Liburua
"En el mar"



Liburua
"Txoriak dira bederatzi"

MERKATU TXIKIA

- > **ALOKAIRUA** Abuztua Oñatin igarotzeko etxe bila gabilta, alokairuan hartzeko. Deitu: 654128995.
- > **OÑATIKO EMAKUMEA LAN BILA** Umeak nahiz pertsona helduak zaintzeko lana bilatzen ari naiz. Lan eskarmentu handia zaintzan. Harremanetarako: 680636780.
- > **SAN LORENTZON** garaje itxi bat errentan ematen da. Deitu: 657 716 385.
- > **PABILIOIA ALOKAGAI EDO SALGAI** Berezao auzoan. Harremanetarako: 677 425 822..

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**
Ekainak 8, 9, 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30. Uztailak 1.
- IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**
Ekainak 4, 5, 13, 14, 22, 23 eta 24. Uztailak 2 eta 3.
- GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**
Ekainak 6, 7, 15, 16, 17, 25 eta 26. Uztailak 4 eta 5.
- JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**
Ekainak 1, 2, 3, 18, 19, 27 eta 28. Uztailak 6, 7 eta 8.

JUBILATUEN ASTEA

Ekainak 11 Juan José Sagarzazuren hitzaldia: 'Lehen laguntza psikologikoa' (Santa Ana, 17:30); **Ekainak 12** Aloña abesbatza eta musika eskolako taldeen kontzertua (Santa Ana, 18:00); **Ekainak 13** Ibilaldia, hamarretakoa eta dantzaldia (Pake Leku, 10:00); **Ekainak 14** Bingo berezia opariekin (Pake Leku, 17:00); **Ekainak 15** Txokolatea eta opila, eta dantzaldia (Pake Leku, 17:30); **Ekainak 17** Jubilatuen eguna. Meza (12:00) eta bazkaria (13:00). **Ekainak 20-22** Eskulanen erakusketa (Pake Lekun, 18:00-20:00).



Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazio-Jardura lizentziak
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

Santa Marina plaza eta inguruak (I)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Atal berri honetan Patrue kale, Santa Marina plaza, Moiuia eta egungo Lope Agirre kaleei buruzko xehetasunak azalduko dizkizuegu. Kale Zaharrarekin eta Kale Barriarekin batera, Santa Marinak egituratu zuen Oñatiko hirigune historiko zaharra. Erdi Aroaren hondarrean agertzen zaigu jada herriari buruzko idatzietan; hainbat bider aipatu dugun 1488ko erreketaren ondorengo dokumentuan, hain zuzen ere. Ordurako etxe-multzo garrantzitsua edukiko zuen, dirudienez, agiri horrek auzo horretan 96 familia bizi zirela erakusten baitigu. Seguruenik aurreko mendeetan ere izango ziren eraikinak inguru horietan.

Alabaina, ez zaigu antzinako garai haietako aztarnarik geratu, sute beldurgarri hark dena kiskali eta hondatu zuelako, agian. XVI. gizaldiak ere ez zigun arrasto gehiegi utzi; Patrue kalean zerbait. Gaur egun goiko plazan ikus ditzakegun etxe dotoreak XVII. mendean geroztik jasoak ditugu, aurretik zeudenak ordezkatu ondoren. Alderdi horri izena ematen zion Santa Marinaren ermitak, berriz, XIX.era arte iraun zuen.

SANTA MARINA ERMITA

Esan bezala, auzo honi bere izena luzarotan han kokatu zen ermitatik datorkio. Berau Santa Marina birjina eta martiri klasikoari eskainia zegoen, Euskal Herriko beste hainbat tokitan legez. Iñaki Zumaldek Oñatiko historiaz idatzi zuen monografian (1957) dioenez, ermita honen gaineko lehen albistea paperetan 1505ekoa dugu. Baina zaharragoa izango zen, zalantza barik. Urte batzuk lehenago, besteak beste, Juana Arriaran alargun oñatiarra ermitako serora genuen Santa Marinan; eta handik joan zen XV. mendean amaieran Arantzazura, Errodrigo txo Baltzategikok topatu berri zuen amabirjinaren irudiarentzat jasotako lehenengo elizatzaren arduradun gisa.

San Antonenarekin batera, Santa Marinaren hau izango zen kale-gune aldean zegoen ermitarik garrantzitsuenak. Inoiz parrokiak moduan ere erabili omen zuten Zumalderen arabera; eta XVI.aren hasieran hantxe elkartzen omen ziren alkatea eta auzotako ordezkariak. Hori dela eta, tamaina eta edukiera handi samarra edukiko zuen. Galiziarra ei zen santa honen omenez ermitan gordetzen zen elementu inportante baten edertasunak ere horixe pentsarazten digu. Izan ere, herri-eskolak orube hartan erakitzeke, ermita bera 1864an eraitsi zuten arren, barruko erretaulak beste leku batzuetara eramanez baitzituzten.



Oñatiko Historia eta Arte bilduma

Parrokiako Santa Marinaren aldareko erretaula.

• SANTA MARINAREN ERRETAULA

Santa martiri honen erretaula 1593an berritu zen. Urte haietako joerari jarraituz, estilo erromanista sotil eta dotorean taxutu zuten. Hiru kale eta atikoa ditu; ezkerrekoan bi irudi txiki samar ageri dira: San Juan eta Santa Katalina; eskumakoak beste bi: Asisko San Frantzisko eta Santa Barbara; erdikoan irudi bakarra eta askoz handiagoa: Santa Marinarena alegia; honen gaineko atikoan Andra Mari Sortzez Garbiaren imajina; eta goieneko frontoitxo-triangeluan Aita Eternoarena dirudiena. Ezker-eskuin Lazagarra leinuaren armarria ageri da margotuta. Agian, ermitaren patroiak genituen XVI. gizaldian, gerora Areizagatarrak izan ziren moduan.

Santa Marinaren aldarerako moldatutako erretaula bikain horri gorabehera oso ibiltariak tokatu zaizkio. Ermita 1864an bota ondoren, erretaula parrokiara ekarri zutenean, San Migelko nabe nagusiaren eskumako hirugarren zutabe borobilari erantsi zioten, bertan dagoen erdi ezabatutako izkribu batek adie-

razten digunez; hura, ordea, behin-behineko kokalekua izan zuen, 1886an ezkerreko nabe-barrenera aldatu baitzuten, eta guk hantxe ezagutu genuen mutiko-garaian; azkenik, 1950 hamarraldia-**ren erdi aldera**, Reyes Kostegiren alkatetzaren lehen urteetan parrokiaren hainbat aldakuntza sakon egin zen sasoi hartan, **orain aurkitzen den tokian jarri zuten**: eliza horretako klaustroaren leiho baten ondoko hormatzar bati itsatsita.

• SAN MARKOSEN ERRETAULA

Iñaki Zumalderen *Historia de Oñate* liburuak dakarrenez, Santa Marinako ermitan bazen **beste erretablea bat ere: San Markos ebanjelariarena**, hain zuzen. Santu horren egunean, apirilaren 25ean, San Migeleko **kabildoan prozesioan igotzen zen ermitaraino eta herritarrak ere parte hartzera behartuak zeuden**; joan ezean, erreal bateko isuna pagatu behar izaten zuten. Santa titularraren aldre aurrean erreberentzia eginik, **San Markosen aldarean ematen zuten meza**. Santu honek bazuen baserriaren egutegian txoko jakin bat: *San Jurgi* (apirilaren 23a) *artuak ereitteko goizegi*; *San Markos* (apirilaren 25a) *ereindda balegoz*. Tarte laburra eta estua, benetan. Oñatin, derrigorrean, santu bion egunak, prozesio eta guzti, ospatu beharra zegoenez gero, 24an lan ugari pilatuko zitzaien nekazari.

Ermitako kanpaia eta San Markosen erretablea orduantxe eraikitzen ari ziren Urrutxu aldeko **hilerri berriko kaperara eraman zituzten**. Kanpaiak han jarraitzen du, baina erretablea duela urte batzuetako erreforman kendu zuten.



Santa Marinako *Baruekoa* etxea ezkerreko aldea aldatu aurretik.

Konturatzen gara Kale Barriko eta Atzeko kaleko dendak, tabernak eta gainontzekoak aipatzerakoan, hutsuneak edota akatsak egon daitezkeela. Ez zen gure asmoa esparru hori agortzea, gaira hurbilketa bat egitea baino. Bestalde, aldizkari honetako 282. zenbakiko lanean adierazten genuen bezala, Kale Barriari [KB] sartzen genituen garai bateko Zuazola eta Martzelino Zelaia [MZ] kaleak, baina ez Lazarraga eta Maria Irizar kaleak; eta Atzeko kalean [AK] Ramon Irizar [RI] eta Arantzazuko Ama [AM] kaleak, baina azken hau Portalekuraino bakarrik. Dena den, eskerrik asko erakutsi duzuen interesarengatik.


TABERNA • JATEKETA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ITTEN BAT

(* Itten: arrastua, pistia)

KONTU KONTARI

Fan eta etorri kapela gorri

Fan zan gizaldiko hasieran, gutxi gorabehera horren baten, Zubillagako errota anae bi, mutil gaztiak artian, astia pasaitten euen Bergaran, hango taillertxo batian lan egiñaz ofiziuia ikasten, eta jan eta lo egiñaz apopillo. Irabazten euen apurra apopillotzaia ordainketako enpleaitten euen eta, hala ta be, zorretan geraketan ziran. Astia akabo eta gero, zapatu arratsaldian, hartu bizkarrian zakutxua eta Zubillaga aldera, euren jaixotetxera, oiñez abixaitten ziran, jaixa etxian pasau eta astelehenian, berriz be, lehenengo orduan Bergarako taillerrian lanian hasteko asmuagaz.



Halaxe, ba, zapatu baten, ba ei xoiazan San Prudentzio parian eta han ikusi euen eliza ondoko tabernia eregitta, jentez beteta, danak be giro onian.

Orduan anae batek bestiar: — *Hi, geratuko gaittuk trago bat jotera?*
— *Bai! Eztarrix bustittekogogua baxakuat, baiña!* — erantzun otsan bestiak.

Zubillagako errota

Sartu zittuain eskuak faltrikaran¹ eta bixon artian xemikorik ez; orduan alkarrereri begiratu eta ezer esan barik aurrera jarraitu euen.

Zubillagara aillegautakuan, gozauko zittuain eztarrixok amak emundako afarixarekin; biharko gozau harekin, ze Bergaran irabazittakuarekin jai ekuain.

Hori dok hori, **fan eta etorri kapela gorri!**

¹ Patrikan, sakelan, poltsikoan

EUSKERAZ EGOGI

*Agur bat, *Agurrak

'Agur bero bat' ondo badago, zergatik ez 'Agur bat' edo 'Agurrak'?

"Agur bero bat" oso ebalixa da eta oso ohittuta gagoz agur hori irakurten. Gaiñera, euskera-kontuetan "autoritatetzat" joten dittugun hainbat erakundek euren testu-eredu eta gomendixuetan onartuta dakoi eta pultzaketan daue —"Agur bat" edota "Agurrak" ez legetxe—. Azkenengo honeik, antza danez, eztakoi tradiziñorik eta erdal kutsu nabarmena dakoi.

Amaierako agurra

Idazkixaren hartzailliari zelako formaltasun-mailla dagokixon, halako agurra aukeratu bihar dogu. Amaieria emuteko holako formulak ebali leike:

Formalak

Adeitasunez, agur
Begirunez, agur
Esker milla eta agur

Neutruak

Horrenbestez, agur
Besterik barik, agur
Jaso egizu nere agurra

Adiskide artekuak

Agur, adiskide
Agur bero bat
Besarkada bat
Ez adiorik

Beste batzuk, informalaguak:

Mezuaren asmua laburketan dauen zerbait aukeratu geike amaieran:

- *Erantzun ahalik eta azkarren, ahal badozu.*
- *Esango dostazu zer irizten xatzun / zer pentsaitten xatzun.*
- *Erantsitako dokumentua ezin badozu eregi, esan.*
- *Eta abar.*



Korpusetako prozosiñua Naparreneko kantoian

Berrogetamar urtetik gora dakogunok ondo gogoraketan gara Korpus eguneko prozosiñua gaur egunekua baiño dezente luziagua izaten zala. Beheko partian Arrazolaneko kantoian emuten eben bueltia, Ikasola kaletik (oraingo Madina) Kale Zaharrian gora jarraitetako. Lizaur kalia 1960 aldera zabaldu zanian, agustiñoetako eliziaren parian hasi zan gorako bidia hartzen.

Goialdian, berriz, Naparreneko kantueraiño ailegaitten zan, handik Iturritxo eta Atzeko kalera pasaitteko. Orain, dakitzue-nez, Kirriñeneko kantoian ekitten xao beherunzko martxiari. Aldaketiori 1970ko hamarkadako lehenengo urtietan burutu ei zan, baiña ezta kigu ziur noiz. Norbait akordaitten da?

Gaurko fotografixan antxiñako ibilbidia agerketan xaku, Naparreneko kantoittik Iturritxoko plazatorako zatixa, hain zuzen be. Hortxe bertan egoten zan altara bat, Urrutxuneko etxiaren aurrrian. Prozosiñua geldittu eta San Migelek bere erreberentzie-tako bat egitten otsan Jaunari bertan. Argazkixa 1960ko hamarkadiaren hasierakua dala pentsaitten dogu, agiri diran pertsonak kontuan izanda. Honeik dira ezagutu ahal izan dittugunak:

- Palixuari eusten: ezkerrian, atzetik aurrera: **Felix Galdos**, *Martoluen*a, antioju illunakin; **Joxe Bikuña**, *Erbiña*; eta **Joxe Mari Arregi**, *Irazabal Txikikua*; eskumatik, aurrrian: **Agustin Beitia**; **Santa Krutz errotakua**; eta honen atzian, **Joxe Mari [?]** *Urze lai*, *Uriko Garaikua*.
- Palixo azpitan Jaunaren kustosidixari eusten diharduana **Oñatiko parroquia** izango da, **Jose Arandia** sasue haretan; aldame-nekua **Benigno Iñarra**, parrokiako abadia, izan leike; eta atzerago **Antonio Aranguren**, laterandarra. Aldamenetako guardia zibillak Oñatiko kuartelekuak ziran, ezkerrekua oso ezaguna herrixan.
- Ezkerreko espaloittik doiazenen artetik **agustino laterandar batzuk** identifikaitteko samurrak dira: hiru estudiante lehenen-go: **Kepa Mallea**, Munittibarko bizkaitarra; **Alberto Anduaga**, Auzako naparra; eta **Jexus Agirre**, Olaberriako gipuzkoarra; hurrengo **Jose Luis Lazkanoiturburu** maisua, Kale Zaharrekua; eta atzerago **Rafael Anduaga**, Mendiko kalekua.

Ezta erraza asmaittia zeintzuk diran palixuaren atzetik datozen kontzejukuak. Palixo dotore hori orain dala ehun bat urte erre-galau otsan parrokiari **Maria Andresa Bergarajauregik**, Hipolito Biain enpresarixuaren alargunak.

J. E.

Argazkiko hainbat pertsonen izenak jakittekko argibidiak eskuratu doskue Joxe, Jexus eta Reyes Bikuñak, Erbiñeneko anaiak. Milla esker hiruori!

Oharra: Fan dan hillabeteko fotografixan goiko illarako bigarren emakumia Kasimira Kortabarria zala esaten geben. Baiña zuzen-du biarrian gagoz, **Maria Luisa Ziaran** dalako, Txaiñaneko Faustino Inzaren andria, bergararra jaxotzez eta Oñatiko San Antue kalian bizi izan zana. Eskerrak informaziño hori emutiagatik **Bittori Anduaga**, **Iñazio Inza** eta **Begoña Idigoraseri**.



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS



ZER ESKAINTZEN DUGU?

ASEGURU PROGRAMA PERTSONALIZATUA



BIZITZA

Benetan behar duzun bizitza aseguruak kontratatzen lagunduko dizugu.



OSASUNA

Konpainia espezializatuekin lan egiten dugu: DKV, Sanitas, Mapfre, AEGON, eta abar.



HERIOTZA

Zerbitzu osoa, berme guztiarekin eta eguneratuta. Bezeroak aukeratuko du: ehorztetxea, hilerria, aberriratzea,...



BESTE BATZUK

Beste aseguru batzuk ere egiten ditugu: komertzioak, elkarteak, komunitateak, etxeakoak, eta abar.

*Jar zaitez gurekin harremanetan, eta bilera batean,
gure lan metodologia azalduko dizugu*



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9
20560 Oñati / Gipuzkoa



943 089006



www.coinbroker.eus



oinati@coinbroker.eus